




KARDABERAZ BILDUMA

33



LEKUONA'TAR MANUEL

IDADZ-LAN GUZTIAK

12. GEIGARRIAK ETA ARKIBIDEAK



KARDABERAZ BILDUMA - 33

LEKUNA TAR MANUEL
IDAZ - LAN GUZTIAK

12.

GEIGARRIAK ETA ARKIBIDEAK

I
GEIGARRIAK

Autor: Manuel Lekuona Echabeguren
Edita: Librería Técnica de Difusión - Tolosa
Imprime: Gáficas ESET - Seminario Vitoria
Depósito Legal: VI - 228 - 1988
I. S. B. N.: 84-86416-05-8



1.

Beste zenbait idazlan

SANTIAGO-BIDEAK ZARAUZEN ZEAR *

Santiago-bideak Gipuzkoa'n, bi izan ziran:
Goierrikoa eta
Kostaldekoa.

Goierrikoa, Probintziaren erdi-erditik, Irun'go Behobia'tik, Zegama'ko San Adrian'era; eta Kostaldekoa —izenak berak dion bezela, kostarik-kosta, itxasbazterrik-itxasbazter dijoana— Ondabia'tik (*inclusive*) Ondarroa'ra (*exclusive*).

Goierrikoa, batzuek oñez egin oi zuten eta besteak aberez - mandoz edo zaldiz (*Zamalbide*); eta Kostaldekoa, erdi urez (batelean) eta erdi leorrez, oñez.

Zarauz'ko troxoa, Kostaldekoa zan, Kostalde jatorra: erdi oñezkoa, erdi urezkoa, batelazkoa. Troxu benetan interesgarria.

KOSTALDEKO BIDEA

Kostaldekoa Ondarribia'n sartzen zan Probintzian, eta urez, batelean joan Hendaya'tik Ondarribia'ra, urez jarraitu Ondarribia'tik Lezora; urez, batelean, Lezo'tik Pasai-Herrera'ra;

* «Estudios de Zarauz», t. I, «Zarauz a través de la Historia», Itxaropena, Zarauz, 1987, 55-63 or. T. III, «Zarautz-ko gora bekerak historian sebar», ibid., 95-103 or.

oñez igo Herrera'tik Mirakrutz'eko gañera,
 oñez jetxi Mirakrutz'eko gañetik Donostia'n, Urumea ibaira;
 urez, batelean igaro Donostia'n, Urumea ibaria;
 oñez San Martin-inguruak;
 oñez igo Ayete'n gora;
 Ayete'ko gañetik jetxi Igara'ra;
 Igara'n urez batelean igaro Portuetxe'ko erreka;
 Igara'n oñez Aingeru Guardakoa'n gora, Arratzain'en eta Mendizorrotz'en, erditik, eta San Martin'go Ermitan barrena, Orio'ko Kalera jetxi;
 urez, batelean Orio'n, batzuek Santiago Errekara, eta besteak San Paulo Ermitako kaiara;
 San Paulo Ermitatik oñez Orio-gañera igo;
 Orio-gañetik jetxi Zarauz'ko ixtingara;
Zarauz'ko ixtingan urez, batelean, San Pelayo'tik Santa Marina'ra;
Santa Marina'tik aldapan gora, Santa Barbara'ren ermitara;
Santa Barbara'tik oñez, Getari-lurrean, Azkizu'n zear, Zumaya'ra.
 Zumaya'n Santiago Ermitatik urez batelean igaro Urola ibaia;
 Zumaya'n Klean zear Arritokietan gora, oñez, Elorriaga'n barrena, Iziar'ko Ama Birjiñaren Elizara;
 oñez jetxi Iziar'tik Deba ibaira;
 Deba ibaian urez batelean Astigarribia'ra;
 Astigarribia'tik oñez Motriku'ra;
 Matriku'tik oñez Saturraran'en zear, Ondarroa'ra;
 Ondarroa'n uzten bait da Gipuzkoa-lurra...
 Ondarribia batean artu, eta Ondarroa batean utzi.
 Kostaldeko bide-illara ontan Zarautz'en —Zarauz'ko ixtingan— bi Santu señalatzen ditugu, batela artzeko eta batela uzteko puntu bezela: biok garrantzi aundikoak, biok Zarauz'ko Historian naiko leku dutenak *Santa Marina* eta *San Pelayo*.

SANTA MARINA

Bi Santu oiek —San Pelayo eta Santa Marina, alegia— Santiago bideetan izen aundiko bi Santu izan ziran; *Santa Marina*



Zarautzko Santa Marinaren imajina

batez ere, oso izen berezikoa, Gipuzkoa bezelako Probintzia txiki batean bospasei Santuario dituana.

Zarautz'en bertan, bata;
 Asteasu-lurrean Andazarratekoa, bestea;
 Albiztur-lurreko Santa Marina Argisano'koa bestea; eta
 Gabiria lurreko «Aztiria» barria beste, eta Ezkioga'ko Kanpo Santu, eta
 Legorreta'ko errotako bidagurutzekoa bestea; eta
 Arrasate - Mondragoe'ko, leen Ermita, orain baserri Santamaña; eta

Oñate'ko kalea,
eta aizkenik Bergara'ko Eliza galanta, «Oxirondo'ko Santa Marina» deritzana.

Orretaz gañera, Schulten jakintsu alemanak esan bait zuan, esan, Ondarribia'ko «Barrio de la Marina» bera ere, Jentilleri-garaiko «Venus Marina» baten gogoangarriren bat ez ote dan; lekuak —Jaizkibel— muturreko barrio «Marina» orrek, alegia, olako zerbaiten antza ba duala...

Nolanai dala, gure *Santa Marina*, Elizaren Historian ere gañerako ipui eta leyendaz gañera. Elizaren Historia zaarrea. Mozarabeen rito zaarrea aitormen bat egiten zaio Sakramentarioetan: edozein pertsonaia ez dan señale garbi... Gipuzkoa'n zer-esanik ez, bere bospasei Eliz eta Elizatxo ta Ermitaekin.

KORDOBA'KO SAN PELAYO.
MARTIRI GALEGOA

Ez bait da izan txikiagoa Gipuzkoa'n, gai ontan, Santa Marina'rekin pareja egiten duan beste Santu bat: *San Pelayo*. Santa Marina Jeografiaz bezela, bera Historiaz gurekin lotu ta alkartua dagona: *San Pelayo*, Historiaz Gipuzkoa'rekin alkartua.

Gipuzkoa'ren Historian ba da pasadizu bat, dan baño eza-gunago izatea merezi duana: «Valdejunkera'ko burruka» esaten zaiona, eta Gipuzkoa'ko Erri batean —Antzuola'n— «Moroaren jai» izenez urteoro rito baten bitartez gogoratzen dana: «Moroaren jai»...

Nafarroa'ko Valdejunkera'n, Estella lurrean gaur Alloz'ko «Lohitzuna-pantano» dagon ortan, orain milla urte inguru —924'gn inguruan— burruka gogor bat izan zan Kordoba'ko moroen eta Nafarroa'ko kristauen artean, «Valdejunkera'ko burruka» esaten zaiona. Burruka gogor artan, Gipuzkoa'ko Tertzio bat an arkitu zan; eta Tertzio artan arkitu zan, baita, Antzuola Erriko Konpañia; eta Antzuola'ko Konpaniakoak Kordoba'ko Moroai bandera kentzea lortu zuten. Eta geroztik urteoro, egite eder aren gogoangarri urtero Antzuolako Plazan rito ta zeremoni ikusgarri bat egin oi da egun señalatu batean: Moroaren jai. Antzuolatarren aintzazko jai bazartu bear ez dan egite aintzatsu baten

gogoangarri. Nik ez bait dakit zer Kritika Historikaren izenean bazartu nai izaten diran olako pasadizuak: Kritikak ukatu, bāñan Erriak urteoro gogoratzen dituzten pasadizuak.

Valdejunkera'ko Burruka, eta Antzuola'ko moroen bandera...



Zarautzko San Pelayoren imajina

SAN PELAYO MARTIRIA
OBISPO JAUNAK GERRATEAN

San Pelayo'ren Historiaren osagarri, ikutu dezagun puntu au ere: puntu benetan jakingarria bera ere.

Gauza jakiña da Erdi Aroan Obisporen batzuek Erregeren Obispo kortesano izaten zirala, Erregeren kontsejatzalle, alegia. «Del Real Consejo» esaten zitzairen oietakoak: Erregea joaten zan leku guztietara joaten ziranak, baita gerrako burrukara ere.

Ola joan zan bein Kastilla'ko Errege Alfontso VIII'arekin «Navas de Tolosa»ko Burrukara, Toledo'ko Artzobispo Rada'tar Rodrigo, nafarra zan arren.

Valdejunkera'koan Nafarroa'ko Santxo Gartzeiz'ekin ere beste bi Obispo an izan ziran: Salamanca'ko Dulkidio bat eta Tuy'ko Hermogio bat bestea, Eta, ain zuzen, biok preso erori bait ziran burrukarakoan; eta Hermogio atxillotik ateratzeko, Obispoaren illoba Pelayo gaztea trukadan eman bear izan zuten; eta orren ondoren, Kordoba'ko Emir Abderraman'en Kortean preso zegola Martiri egin bait zuten mutil gizagajoa: «San Pelayo, Kordoba'ko Martiria»...

Ola bada, Nafarroa'ko Valdejunkera'n izan San Pelayo'ren Martiritzaren Historiaren asiera.

Gauza guzti oien gogoangarri ez bait da arritzekoa, denboraren ibillian, gaur Zarautz batean gure Martiri sinpatikoak Eliza apain bat izatea Santiago-bidean pausagarri.

ANTZUOLATARRAK VALDEJUNKERAN

Gañerakoan Antzuolatarraren Historiaren osagarri eta Gipuzkoa'k garai artan Valdejunkera'ko Burrukan Tertzio bat izatea eta Tertzio artan antzuolatarrak Konpañia bat izatea, ez da batiere arrigarri. «Gerrako atabalaren» lanak ziran orduan olako kontuak: «Gerrako atabala» gaur «recluta» esaten dan Instituzio militar ori, alegia.

Erreinu batean, Erreinuaren defentsarako-edo gerra egin bearean arkitzen ziranean, Errege Jaunak erririk-erri gerrarako deia egiteko ordena ematen zuan: erririk-erri, danborra joaz —orregatik esaten zitzaion «Gerrako atabala» Erregeren dei oni—. «Erregeren serbitzu» ere esaten bait zitzaion recluta oni. Serbitzu «voluntario» eta serbitzu pegatua, irabaziduna: «Nai zuana etorri zedilla, jana ta jantzi ta soldata izango zuala orregatik

esaten bait zitzairen «soldado» alistatzen ziranai... Uste bait degu Valdejunkera'ko kasuan alistatuak asko ta asko izango zirala, Nafarroaz gañera, Euskalerra guztitik Gipuzkoa'tik, eta Bizkai'tik eta Araba'tik; eta aien artean Antzuola'ko Konpañia osatzen zutenak... Kordoba'ko Moro-tropari egun artan bandera kendu ziotenak...

SAN PELAYO'REN IMAJINAK

Bi imajina ezagutzen ditugu, San Pelayo'renak. Biak aparte-ko politak, ederrak. XVII gizaldiko estilorik dotoreenetakoak...



Irurako San Pelayoren imajina

Bata, Zarautz'ko Sakristian gordetzen dana; eta bestea, Iruera'ko Sakristian...

Biok Eskultore Maisu onen baten esku-lanak. Ez bait dakigu artistaren izenik, bañan bai estiloaren aztarrenik, XVII gizaldi artan izan bait genduan Gipuzkoa'n Eskultore-taller ederrik (Ben-

goetxea bat, adibidez, eta Goikoetxea bat Irura'n bertan, Antxieta bat Azpeitia'n eta Tolosa'n Bazkardo batez gañera).

Irura'koa oso lan interesgarria: soñean Dalmatika, Diakono jantzia, eta buruan denbora bateko fraide frantziskotarren koroiburesti-kurpilla Greko'ren kuadro ezagun-ezagun batean San Franzisko'ren lagun Frai Leon'kaskoan erakusten duanaren antz-antzekoa: dana oso tipiko. Eta Zarauzkoa mutil gazte (efebo) Martiriaren palma garbo berezi batean ezkerreko eskuan erakusten duala... tipiko-tipiko, begi-ondoan ubel, negar-egin-berri, begiak zerura begira...

Bi irudi-imagina, «zein-baño-zein», benetan «eredu»...

Euskalerriko Toponimoak Geografo Klasikoetan *

Bat bakarrik aukeratuko degu guk, komentario txiki bat egiteko: gure jaiot-erriarena: OIARTZUN. Gurea dalako, eta gure Oyartzun'ek, beste erri gutxi bezelako suertea izan dualako gai ortan, orain bi-iru milla urteko Geografoak gure Erriaren izena aipatu izatea. Ez bait dute erri askok olako suerterik.

* * *

Iru-lau Geografo aipatuko ditugu: bi ejiptoar (Tolomeo ta Estrabon) eta latino bat (Plinio). Tolomeo Kristo baño zerbait leenagokoa; ta Estrabon Kristo'ren garaikoa; eta Plinio Kristo'ren beraren garaikoa. Irurok ere naiko zaarrak: bi-iru milla urte.

* * *

Bi ejiptoarrak (Tolomeo'k eta Estrabon'ek) gure Erriaren izena, OIASSO idazten dute: forma nominatiboan; baño, deklinabidean sartu ezker, bukaeran -N bat artzen duala (*Oiassonis*, *OiassoNi*, *OiassoNem*) gaurko *Oyartzun*'en antza-apur bat geiagorekin... naiz-ta tartean, «*Oyartzun*'en -R-rik gabe (*Oiasso*)...

Tolomeo'k bi aldiz aipatzen gaitugu: biotan *Oiasso*'ren forman: batean Erriari dagokiola (*Oiasso(n) polin*) eta bestean, Jaizkibel mendiari dagokiola (*Oiasson*, akron *PyrEnEs* = «*Oiasson*, *Pireneo*»'ren muturra). Geografo zaar aiek gure Jaizkibel, *Pirene Mendi* luzearen bukaeratzat jotzen bait zuten: Tarragona'n asi-ta, gure *Oyartzun*'en bukatzen dan mendi luzearen moko ta muturra bezela (*Akron PirEnEs*). *Pireneo*'ren mutur, moko.

* RIEV, 2/3 (1986).

Estrabon'ek ere gure Erriaren izena, forma berean ematen du (*Oiasson, Oiassona polim*), izenaren tarteko -R-rik gabe.

* * *

Nolanai dala, itz orretan, -r-'rik gabe idaztea, ez da, bear bada, ain arritzeko gauza. Bear bada, gure bi grekoak —Tolomeo'k eta Estrabon'ek— -ss- doble baten bitartez -rs- bat, edo -rz- bat esan nai zuten. Ez dakigu garbi-garbi, zer misterio ezkutatzen dan -ss- orren barruan; bear bada, ain zuzen, guk -rs- edo -rz-rekin esaten dezun gauza bera (-ss- = -rs-) -r-ren eta -s-ren artean diran artu-emanen indarrez (ikus *esan, erran; Arlanzon, Aslanzon*; eta *honor, honos* latinean)...

* * *

Ortik landa, oroiterazi bear degu, Plinio'k bere textuan ez diola *Oiarso, Olarso* baizik irakurtze oker batez, seguru asko...

* * *

Gañerakoan, Plinio'ren itzak latinez daude. Latin zaarrea. Ez ain konprendi-errezean.

Orrela dio, Geografi-izkuntza eskematiko batean:

«Proxima ora Citerioris est, eiusdenque Tarraconensis situs, a Pyreneo per Oceanum, *Vasconum saltus, Olarso*».

Eta, ikusten danez, Tarragona'tik asi-ta, gure Oyartzun arteko bidea ikutzen du, iru izen aipatuaz:

«Tarraconensis (situs)

a Pyreneo

eta per Oceanum».

Bide luzea, itz gutxitan sintetizatua; bañan guretzat, batez ere, bukaerako *OLARSO* orrekin ornitua, aurretik *VACONUM SALTUS* eder bat duala.

* * *

Vasconum saltus eta Olarso oiek «bereiz» irakurriaz... ez leen, oraindik berriro, irakurtzen ziran bezela: biok bat egifiaz, alezia «saltus» ori, ondotiko «oiar» itzaren anplifikamen eta etimologia bait-litzan; gaur ordea biok bereiz irakurtzen bait dira... Geografi-lekzio polit bat.

* * *

Itz geiagotan bide bera —Tarrako-Oiassona— Estrabon'ek markatzen du:

«Ek TarrakOnes (1) epi tous schatous epi tO OkeanO OuaskOnas tous kata PampelOna kai tEm (2) ep'auto tO OkeanO OIASSONA polin».

Arritzeko gauza da, bai Plinio'k, bai Estrabon'ek Ouesko-nak, biok berdin kalifikatzea: ots! «auzo» bezela («ora PROXIMA» bait dio Plinio'k, eta SCHATOUS OuaskOnas» Estrabon'ek; eta biok «auzo» esan nai dute) biok iturri beretik edaten ari dirala, señale... batek *Olarso*, ta besteak *Oiasso* badiote ere.

* * *

Arritzekoa da baita, Estrabon'ek errenkada labur batean adberbio «epi» iru aldiz erabiltzea, esan nai duana obeto detallatu bearrez, bañan denbora berean gauza illun-arraixkoan ipifiaz, besteak beste.

Guk «epi»-illara ori, onela euskeratu degu:

«Tarragona'tik asita, *an-inguruan zear*

Panplona-aldeko Ouaskon auzoen *artean zear*

Okeanoaren *gain-aldean zear*

OIASSON Erria,

Okeanoaren beraren *gain-aldean zear* bait dago».

«Epi» orrek, beti ere, egoera gain-antza esan nai bait du.

* * *

(1) O mayúscula, pro OMEGA.

(2) E mayúscula, pro Eta (e longa, duplex).

Bukatzeko, Plinio'rengana biurturik, ikutu dezagun VASCO-NUM SALTUS dalako zerbait ori. Zein baso da Geografo latinoak or aipatzen duan baso sonatu ori?

Kontextoak izen bat ipintzen digu garbi-garbi: «Olarso», ots! Oyartzun. Oyartzun'en auzo dan Vaskonen basoa bear du izan...

Guretzat, guk Oyartzun'en «Urumea-Erreka» esaten diogun ingurumariko baso mardula: Bianditz-Artikutzatik asita, Iraurgi-Añarbe'n barrena, Goizueta eta Arano'n bukatzen dan baso ederra. Beren iturri eta errekaak «Urumea-Erreka» aundira ixurtzen dituzten mendi ta basoak; Plinio'ren «Vasconum saltus» dalako lurralde historietakoa... Guk Oyartzun'en «Urumea-Erreka» esaten dioguna.

2.

Euskararen inguruan

EUSKALTZAINDIAREN 50 URTEBETETZEA EUSKERAREN BATASUNA

Jaun eta andreak:

Euskaltzaindiari, aurten, bere 50'gn. urte-betetzearen arlo ta zeregin berezi bezela, Euskeraren Batasuna eratu dezala eskatu zaio.

Urte onen lenengo Batzarrean izan zan. Bilbao'n. Orain 50 urteko Oñati'ko euskal-jaiak gogoratzean, urgazle Jaun batek egin zuan eske ori.

Bilbao'ko Batzar artan, aurten Oñati'n bertan jai berezi batzuek eratzea erabaki zan —jaiak ez baño, estudio-egun batzuek obeto—; eta geroztiko gure Batzarretan, batasunaren gai ori erabilli da eten-gabe.

Aizkenik, Uzta-illean, euskal-idazleen batzar bat egin da Ermua'n, batasunari dagokion zenbait gauza erabakitzeke; eta, an batzartu diran idazleak ere —geienak bederenik— eskabide bera egin-edo diote gure Euskaltzaindiari: batasuna eratu dezagula, alegia, batasuna eratzeko zer-egia gure gain artu dezagula.

Bitarte ortan, gure illoroko Batzarretan, gai onen zenbait gauza obeto aztertu dira, eta aien artean au batez ere: batasuna nola «aditu» bear dan: noraño egin bear dan, zertan, zer salletan; eta guztion iritzia izan da, batasuna *idazleen artean, idazleentzat* egin bear dala: idatzietan, ez izketan (itz, orain arte bezela, bakoitzak bere eran); idazleen artean, ez errian (erriak orain arte bezela); eta idazleak berak beren idazti errikoietan, ez goi-

idaztietan (ez Olerkietan, eta Nobelistikan, adibidez; ortan idazleak azke gelditzen dirala, bakoitza bere erara). Itz bitan: batasuna, bi gauza oietan: a) aldizkarietan («Zeruko Argian», «Anaitasunean», «Yakin'en», «Jaunaren deian», «Laiaketan» etab. etab.); eta b) Ikastoletan, Ikastoletako Liburuetan eta jolasketetan etab. etab., d) Liturgiaren zenbait zatitan...

Gauza oiek ondo neurtzeko, berriz, Batzar oietako batean, batzorde berezi bat izendatu zan; eta batzorde orrek, neurri oiek ondo mugatzeko, Mitxelena Jaunari eman zion, txosten on bat egiteko agindua. Eta geroztik Mitxelena Jaunaren babes seguruan izan ditu batzordeak zenbait billera, Mitxelena Jaunaren txostena guztion artean aztertzeko.

Txosten ederra eta ondo pentsatua, gure Euskaltzain-lagun Mitxelanarena; oñarri orokar batzuen ondoren —ikusiko zenduten— gramatika-auzi guztiak ukitzen ditu ederkitxo: asi Fonetikatik eta Morfologian zear, Ortografiaraño.

Eta aizkenik, batzordekoen artean txosten-zati bakoitzerentzako «ponenteak» izendatu ondoren, amaitu du batzordeak bere lana, eta gaur dana zeurok ikusi eta arakatu ta aztertuko dezute, gai bakoitzean bakoitzak bere iritzia garbi esan dezan eta ola eratu, mugatu eta atondu, guztiok nai degun batasuna.

Orra, bada, itz gutxitan arazo onen edesti ta historia.

* * *

Orain, etorri zaizkigun ponentziak eta bakoitzak ekarri lezazkeanak, aztertzen asi baño leen, batasunari dagozkion gogora-bear batzuek gogorazi nai dizkitzuet nik emen.

Eta lenengo, Euskeraren batasuna egitea, lan zalla dala, lan gaitza, Euskera, izkuntza ugaria da, bai lexikoan, bai aditzaren jokaeran. Eta ugaritasun ortan, aukera bat egin bearra dago, batasuna lortzeko. Lan zalla. Zer artu? zer utzi? Irizpide on bat erabilli bear... «Bereizten gaituana utzi»; «guztiontzat berdintsu dana, artu». Bañan zer da, berdintsu dana? nun dago? Mitxelena Jaunak lan luze ta zabala egin bear izan du, ori erabakitzeke. Eskerrak berari.

Bigarren —eta au ez da ohea— Euskeraren batasuna egitea,

lan mingarria dala. Gure Izkuntza aberatsa, *pobretu* egin bear; eta orrek, nai-ta-nai-ez, min ematen digu, Euskera dan bezela maite degunoi. Bakoitzak *txikitandikan bizi izan deguna* utzi, eta besterena artu bear; eta orrek ere min ematen digu.

Ala ere, min oiek gora-beera, egin-bearreko lana, batasun-lana. Ebaikuntza bat, operazio bat egin bear danean, min izaten da; bañan operazioa, egin-bearreko gauza izan oi-da askotan, biziari laguntzeko, bizirik irauteko. Operazioak gorputza itsusi uzten du; eta ala ere, egin egin bear. Besoa moztea, gorputza beso-bakar, basamotz uztea da; bañan, egin bear danean, naiz-ta beso-bakar gelditu, egin egin bear... «obe bait-da —Jaunak dion bezela— beso-bakar ta begi-bakar *bizi*, bi beso ta bi begidun *il baño*»...

Euskera biziko bada, batu egin bear, beso-bakartu egin bear, anka-bakartu egin bear... «bizitza dezan, eta ugariago dezan»; indartsuago dedin, alegia, errextuta, laburtuta, batuta, geiagok eta geiagok mintza dezan...

Maastia ere, iñaustu, kimatu bear izaten da. Aien geiegi aterra oi-ditu urtearen buruan; geiegi ori, moztu egin bear zaio maats-ondoari, maats-mordo mardulagoak emango baditu... Min izango zuan iñolaz ere lenengo maastilariak, aien-mozte ori egin bearra, bañan min protxugarria.

Berdin gertatuko da gure Euskeraren maastiarekin ere. Fruitu ugariagoak emango ditu.

Bañan au ere gogora bear degu. Euskera batutzea ez dala naikoa izango. Euskera batutzea ez da panazea bat euskeraren problema guztientzako. Euskera batutzea, euskeraz errezago ta ugariago mintzatzeko da. Bañan batu ta guzti, guk mintzatzen ez badegu, berdin-berdin ilko zaigu. Eta ola, gure batasun-lan guztiak alperrikakoak izan ditezke. Ez dedilla olakorik gerta.

Bukatu baño leen, beste zer bat, eskabide bat guztioi.

Oñati'n gaude: oñeztar eta ganboarren lur jatorrean... Ez gatzazkiela, gure arbaso makur aien urratsai jarrai iñolaz ere. Ez gatzela Arantzazu'ra, batzuek oñeztar eta besteak ganboar, bakoitzak bere ezpata eskuan, beste iritzikoen aurka gudatzeko prest. Dezagula pake, dezagula batasun —biotzezko batasun— gure BATASUNARI BURUZKO eztabaitak asterakoan. Eta pake

ortan jarrai dezagula, eztabaidak dirauten arte guztian. Eta berdin gero ta gero ere.

Arantzazu izan dedilla orain ere, leen noizpait bezela —orain bosteun urte bezela— guztiontzat pakezko lokarri Euskeraren alde,

Eta onenbestez, eskerrak Arantzazu'ko fraide frantziskotarrari, iru egun oietarako ematen diguten aterpearen alde. Eta beste gabe, guztiok ondo etorriak zeratela.

NERE DESKARGUA

Euskaltzaiñok:

Iru urte dira, Euskaltzainburu naizela. Bitartean zenbait gora-beera izan degu Euskeraren problematikan. Egoki izango da, gora-beera oiei buruz nik nere deskargotxo ematea.

Urte bi dira, Bilbao'n egindako, Ilbeltzeko Batzarrean, Euskaltzaindiaren *berrogeitamar* urte betetzearen gogoangarri zerbait berezi egitea erabaki zala. Asmo bat batez ere artu genduan danok orduan: urtearen barruan Euskeraren *batasunari* buruz zerbait saio eratzea.

Gauza garrantzitsua zala esan zan, bañan baita kontuz egin bearrekoa ere, batasun-eratze ori. Gogoan izango dezute noski guztiok, Batzar artan bertan Arrue Jaunak esan zuana: «Euskaldunok, olako gauzetan «anarkixta xamarrak» gerala. Batasuna, norbaitek proposatzen zuan bezela, *por decreto* egiten asten bañan, orixe naikoa izango zala jendea kontra jartzeko».

Xenpelar bertsolariak esan zuana:

«Gaitzak gerala umiltzen
eta pekean unitzen».

Neronek ere gauza bera esan nuan, Arantzazuko Batzarreko Sarrera-Itzaldian, *Oñeztarren eta Ganboarren* arraixkua aipatu nuanean.

Arazo ontan arraixku ori baztartzea izan da nere ardurarik aundiena, urte ta erdi ontan. «Por decreto ta diktadoreki gauzak egitea galerazi: orixe izan da nere ardura. Ez dakit logratu dan,

Arantzazu'ko Batzarrak bukatu bezain laister, batzuren batzuek izugarrizko pozez asi ziran, ango, Mitxelena Jaunaren erakutsien «conclusioak» mundu guztiari ezarri bearrez. Ezartze ori, eta batez ere presaka ezartzea, orixe da, ezer bada-ta, diktadura. Ori iñolaz ere galerazi bear zan. Nik ortara jo det batez ere, nere alegin guztiaz. Presaka ez da ezer onik egiten auzi auetan.

Mitxelena Jaunaren iritziaz gaiñera, beste iritzi geiago ere entzun bearra zegon. Ortarako beta artu bear da. Ponpeo Fabra'k katalanaren batasuna egiteko, amar urteren epea eman zuan, erriari kontsulta egiteko, erriaren plebiszito praktiko bat lortzeko.

Gure artean —esan det— alderdi batekoak bereala asi ziran, beren aldeko lanean. Eta berak beren aldetik asiaz gaiñera, Euskaltzaindiak Arantzazu'ko *conclusio* aiek guztioi ezartzea, guztiok artara beartzea nai zuten. Nere iritzia gai ontan, bestelakoa izan da: Ponpeo Fabra'k bezela, itxedon, erriaren postura ikusi arte; diktadurak baztatu; utzi guztioi itz-egiten.

Ni bildur nintzan bezela, Arantzazu'n bertan azaldu ziran bi alderdiak: *Oñez* eta *Ganboa*. Etzan arritzeko, an gauzak planteatu ziran bezela. Gai garratzak erabilli ziran; garratzxoak, alderdirik ez sortzeko. Aditzaren arazoa baztatu egin zan, gai zailtxoa zala-ta; baiñan ori bezain zailla dan Hren gaia ukitu zan, gai teoriar errea Mitxelena baten eskuetarako; baiñan praktikan zailtasun aundiak dituana: gutxienez bi gizaldi —berreun urte— dirala, Bizkaian eta Gipuzkoan erabilli ez dan elementu bat, orain, bat-batean, gabetik-goizera ezartzea... Gauza zalla benetan... Eta bereala etorri zan, ni bildurtzen ninduana: *Oñaz* eta *Ganboa*. Guztiok zerate testigu. An bertan. Eta gero, ondoren, zer esanik ez.

Orain galdera bat: Zer egin? Zer egin bear zuan Euskaltzaindiak arazo ta ereti ortan, bidagurutz ortan? Batzuen alde eta besteen kontra bere burua azaldu?

Nere iritzian, Euskaltzaindiak «neutral» izan bear du olako auzietan; eta ortara saiatu naiz ni alegin guztian.

Euskaltzaindiaren egitekoa, auzi ontan, guztiontzako alkarizketa-giro bat sortzea da: alkarizketa-giro paketsu bat sortu. Auzi zalla dan ezker, utzi guztioi itz-egiten; entzun guztiona.

Arantzazu'n alderdi baten itza entzun zan batez ere. Beste alderdiarenak ere entzun bearra zegon. Eta ortarako ekilibrio on bat izateko, bear dan beta artu. Luzatu bear bada, luzatu. Gauzak diktadoreki egin, ez. Ori izan da —diot berriz ere— nere ardua urte ta erdi otan.

Batzuren batzuek Euskaltzaindiak gauza bereala zirt-edo-zart erabakitzea naiko zuten. Alde batetik eta bestetik. Ponpeo Fa-

bra'k —leen ere esan det-eta— Katalunian amar urteko epea eman zuan. Eta amar urteren buruan balantze bat egin, erriak zertara jotzen zuan.

Bide luzea dala? Sobra dakigu. Baiñan gauzak diran bezela artu bearra dago. Bereala ta «por decreto» gauzak egiten asteak, ba dakigu zer dakarren: Xenpelar'ena:

«Gaitzak gerala umiltzen»...

Arrue Jaunak esan zuan. Baiñan ez Arrue Jaunak bakarrik; Mitxelena Jaunak ere, bi edo iru aldiz, gauza bera esan zigun. Ez bera, ez Euskaltzaindia, ez dala nor, bere *conclusio*ak iñori ezartzeko... Berak ere etzuan nai diktadurarik. Ezarri, ez. Arau batzuek eman, ori bai. A. Villasante'k itz bitan esan zuana: Mitxelena Jaunaren Ikasgaiak «valor normativo» dutela, ez «valor preceptivo». Gu ez gera nor, gai ontan «agintzeko». Euskeraren «jaun-da-jabe», erria da, ez gu. Guk ezin dezakegu *agindu*. Bide bat erakutsi, bai. Baiñan guk erakutsitako bide ori erriak jarraitu bear du. Eta jarraitzen duan ala ez, praktikan ikusten da.

Orain, praktikari buruz, zer? urte t'erdiko praktikari buruz, zer?

Nere itzak ez dezala iñor ofendi. Baiñan esan bearra dago. Batasuna egin naiean asi giñan. Nik uste, ez genduala bide ona aukeratu. Ortografia-gaia ukitzean, H'ren auzia ipiñi genduan maigañean. Zoritxarrean. Batasuna lortu bearrean, bitasuna sortu zaigu. Eta nolako bitasuna! bitasun psikologikoa, asarrea, burruka...

Urte t'erdiko esperientziak beste gauza bat ere erakutsi du; ez H'ren arraixkutasuna bakarrik, H'ren zail-zailtasuna.

Batasunak bi gauza eskatzen ditu batez ere: lenengo, oiñ-arri zabala, batasuna gauza errea izan dedin; eta bigarren, denbora, denbora luzea. Ponpeo Fabra'ren pazientzia.

Orra nere iritzia itz gutxitan.

Eta orra nere iru urte otako deskargoa.

APENDIX GEIGARRI

1) Nere deskargu onen geigarri, entzun ditzagun orain Mitxelena Jaunaren itzak gai ontan. Aiek erakusten digute, nolako egoera neurtuan arkitzen geran Euskaltzaiñok Euskeraren eta Euskalerrriaren aurrean.

Ona itzak: «Batasun osorik egiteko ez du Euskaltzaindiak, ez eskurik, ez indarririk, ez berez, ez besteren bitartez. Gidari eta bide-erakusle agertu nahi luke, orain gauden egoeran egin ditek neurrian».

Itz oiek neurtzen dituzte ondotxo Euskaltzaindiaren esku-bideak Euskeraren gain. Euskaltzaindiak ez du Euskeraren gain *jurisdikziorik*. Euskaltzaindia ez da Euskeraren eta euskaldunen gain, Estadua bere menpekoen gain dana. Ezta Eliza kristauen gain dana ere.

Estadua ba du jurisdikzio; eta bere legeetara makurtzen ez dana, aitor ta deklara lezake «legetikan kanpora», *encartado*, *bandido*. Ez Euskaltzaindiak —ezta beste edozein Akademiaek ere— ez dauka olako jurisdikziorik. Euskaltzaindiak —dio Mitxelena'k— bide bat erakutsi, bai, ba lezake. Biderik iñori ezarri, ez. Bidea artu nai duanari gidari izan, bai. Bidea arrerazi, ez. Ori da Mitxelena Jaunaren arauz Euskaltzaindiaren egitekoa. Edo-ta A. Villasante'k esan zuana: Euskaltzaindiaren erabakiak, *normatiboak* dira; ez *prezeptiboak*. Berak erakutsitako bidean, zer dan zuzena, korrektoa, esan, bai; bidea arrerazi, ez.

Elizak berak ere ba du aginte, Sinismen eta moral-gauzetan. Eta deklara lezake *herege*, Sinismen eta Moral-bidean oker dabilena. Akademi batek ez du olako aginterik izkuntzaren gain. Guk ezin deklara dezakegu iñor *heterodoxo* Euskal-gaietan. Euskeraren jaun-da-jabe, Erria da; ez beste iñor. Guk Erriari erakutsi dezaiegu; agindu, ez.

Itz bitan, Mitxelena Jaunaren neurrian: Estadua ba du in-

dar; Elizak ba du esku. Guk ez degu, ez eskurik, ez indarririk, Euskeraren izaera ukitzeko. Bidea erakutsi, bai. Ezarri, ez.

2) Euskaltzaindiaren «neutralidadeari buruz», esan lezake norbaitek, nik neronek, urte t'erdi otan H'rik gabe idatziaz, nik neronek autsi dedala neutralidadea.

H'rekin idatzi banu ez al nuan autsiko?

H'rikan gabe idatziaz, nik Euskaltzaindiaren leengo, betiko Ortografiari jarraitu diot; ori bait zan Euskaltzaindiaren leengo Ortografia Bizkairako eta Gipuzkoako. Auzi ontan leengo Ortografiak bere alde du «la ley de la ventaja» esan oi dana; edo-ta jurista zaarrak esaten zutena: *in dubio, melior est conditio possidentis* = «olakoetan leenean dagonak du ventaja»; edo-ta dialektikoak ziotena: *asserentis est probare* = zerbait berri esaten duanari dagokio gauza probatzea, arrazoiak azaltzea. Zaarrean dagonak ez dauka, arrazoirik eman bearrik.

Nik neutralidaderik autsi gabe idatzi det H'rikan gabe. Ezin idatzi nentzakean, ordea, H'rekin, neutralidadea autsi gabe. Beraz, edo-ta ezer idatzi gabe egon bear nuan, edo H'rikan gabe idatzi bear nuan.

Idatzi gabe egotea, ordea, esku-artean gendukan auziari oker aundi bat egitea zan. Auzi onek, bi alderdien artean ekilibrio bat eskatzen zuan. Arantzazu'n alderdi bati eman zitzaion —alako giroa zegon— lekurik geiena. Beste alderdiari ere eman bear zitzaion bere leku. Gauzaren ekilibrioak ori eskatzen zuan. Mitxelena Jaunaren itzak berak, askorentzat etziran ezagunak, ariketa orain EUSKERAN azaldu diran arte. Egoera ortan alderdi biai berdin ez laguntzea, zuzenbidearen kontra zan. Orretxegatik jarraitu det nik leengo Ortografian idazten. Ain xuxen, auziaren ekilibrioa eta Euskaltzaindiaren neutralidadea zaitzeagatik.

3) Beste gauza, benetan garrantzitsua: zer egin bear da orain Aldizkariakin eta Ikastolakin? Gauzak jarri diran bezela, galdera oiei erantzutea, ez da ain gauza erreza; nik beintzat ez daukat ortarako argirik asko. Euskaltzaindiak berak, sakon-sakon aztertu ta estudia bearreko gauza dala deritzat.

Batasuna bi gauza oietarako eskatu zan: Aldizkarietarako

eta Ikastoletarako. Eta, H dala ta ez dala, batasunak esku-artetik alde-egin digu. Zer egin orain?

Nik gauza bat aurreratu dezaket: leen ere Aldizkarietan bi malla zirala: Idazleena, eta errietako korrespontsalena. Idazleak etzeuden beartuak batasunaren legeetara. Beraz errietako Korrespontsalentzat bakarrik izango ziran Arantzazu'ko legeak. Orain zer egin errietako Korrespontsalakin? Euskaltzaindiak esan dezala. Bear bada, h-kontuan programa minimo bat ezarri?

Ikastolai buruz, beti ere gogoan euki bearreko gauza da, Ikastolak umeen gurasoenak dirala, ez gureak. Eta guztiok dakizute, gurasoen iritziari buruz, Arantzazu ezkeroko urte t'erdi otan, Bizkai-aldeetik batez ere, Pedagogi-lege bat aipatu dala: umeak gurasoen izkuntzan eta izkuntza-eran ezi bear dirala (orixe bait da, ain xuxen, Ikastolak sortzeko euskaldunok daukagun eskubidearen oiñarri); ez dala bidezko, beraz, umetxoai beren gurasoagandik bestelakoa dan izkuntza-erarik erakusterik. Pedagogi-legea da, lege arrunt-arrunta. Gurasoen iritzia entzun bearra daukagu, beraz.

4) Tarte ortan, beste auzi bat gelditu zaigu: «Arantzazu'n erabaki al zan ezer? —ezer, juridikoki «erabaki» esan litekeanik?».

Gauza au, gutxienez, oso dudakoa da. Auzi ontan, dudarik gabekoa, gauza bat da: an etzala izan botaziorik, euskaltzain jatorren botaziorik.

— Bear al zan? ez al zan bearrik? naikoa al zan, entzule batzuek txaloak jotzea? —Ori, Euskaltzaindiak berak erabaki bear du; euskaltzaindikoak, ez beste iñork. Batez ere Mitxelena Jaunaren itzak gogoan arturik: «Euskaltzaindiak ez dezakeala, alegia, ezarri batasunik; ez duala ortarako, «ez eskurik, ez indarrik».

Nolanai dala, erabaki balitz ere, baiñan gero, erabakitakoa Euskerarentzako kaltegarri litzakela ikusi, okerra zuzendu bear ko litzake. Euskeraren ona da emen lendabiziko gauza: *Salus populi suprema lex*, besteak esan zuan bezela: «Erriaren osasuna, erriaren ona da, lege guztietan lenengo lege, lege nagusi». Erabakirik artu izan balitz, ori.

H'rekin zertan gelditu giñan, beraz? Mitxelena Jaunaren arauz,

ezarri ez. Zer, orduan? Rekomendatu? ontzat eman? obetzat eman? Nolanai, ezarri ez beintzat. Nai ez duana libre da, ez erabiltzeko. Libre dan bezela erabilli nai duana. Ori bai: erabilli nai duanak, «ola ta ola» erabilli bearko du: ots! Mitxelena Jaunak erakutsitako legeen azpian.

Nik ola ikusten det gauza; eta iritzi onen barruan jokatu det urte t'erdi otan.

Itz bitan bukatzeko: gure batasunaren auzi onek, *perspektiba* falta du oraindik. Erriaren plebiszittoa. Ponpeo Fabra'k Kataluña'ko erriari opa zion epea, plazoa: amar urteko plazoa.

Orra esan nere iritzia.

ARANTZAZU'KO BATZARRA

(KRITIKA)

Arantzazu'ko Batzarra askok eta askok aipatzen du. Arantzazu'ko Batzarra eta Arantzazu'ko erabakiak...

Zer izan zan Arantzazu'ko Batzar ura? zer indar du?

Batzuek bat diote, eta besteak bestea. Gai ontan gauza bat dago argi ta garbi: Arantzazu'n etzala izan botaziorik.

Orain nere galdera: —Bear al zan? ez al zan bearrik? H'ren auziari dagokionez batez ere?

H'ren auziari dagokionez, ba dirudi, an esan ziran gauzak oso gauza astunak izan zirala, eta olakoetan guztiok dakigu botazio on bat bear izaten dana.

Berreun urte egiñak dira, A. Kardaberatz'ek, bere «Euskeraren berri onak» deritzan liburuan, eta arekin batean baita bizkaierazko ta gipuzkoerazko idazle danok ere, H guztiak Euskeratik aienatu zituztena.

Eta, ain xuxen, Arantzazu'ko urtean bete ziran berrogeitamar urte, Euskaltzaindia sortu zana, ta berealaxe, lan luze ta sakonen ondoren, bere Alfabetoan, H'ri oxta-oxta leku eman bai, bañan letra orren praktika Bidasoaz beste aldekoentzat libre utzirik, praktika ori Bizkai ta Gipuzkoa'rako beintzat zearo bazartu zuala.

Ortiz gañera H'ren praktika eta teoria bera ere bai, naiz gipuzkoerazko, naiz bizkaierazko Gramatika guztietan zearo kenda arkitzen genduan.

Bidasoaz beste aldekoak ere gero ta gutxiago erabiltzen ari bait dira...

Orain, beraz, nere galdera: iru eguneko lekzio ta teoriarik jakintsuenak naikoak al ziran, egoera sakon au, botazio gabe, zearo aldatzeko, eta H'ri orrenbeste urtean izan ez duan lekurik, iru egunen buruan emateko?

Ori da nere lenengo galdera: Bear al zan botaziorik? ala etzan bearrik?

Euskaltzaindiari berari dagokio galdera oni erantzutea.

* * *

Bañan, norbaitek esan bait lezake, botaziorik izan etzan arren, izan zitekeala botazio baten berdin dan zerbait; erderaz «por aclamación» esan oi dan zerbait; *plebiscito* ta *referendum* esan oi dan zerbait, alegia...

Plebiscito oiek gauza arrixkutsuak izan oi dira. Nolanai dala, norbaitzuek beren gain karga bat artu bear dutenean, ez dau de ain gaizki, bañan karga besteri ezarri bear zaionean, plebiscitoa baño joku garbiagoa eskatzen du giza-lege jatorrak.

Ori, gauzaren muñari dagokionez.

Plebiscitoaren formari dagokionez, berriz, ba dakigu zenbait plebiscito, «multitudinario» ere izan ditekela, ots, naasia.

Arantzazu'ko Batzarrean, euskal-idazle guztioi ipiñi bear zitzaion Ortografia bat, ez batzarkideai bakarrik; batzarkideai eta batzarrean etziran guztiai... Ori ezin izan ditekela plebiscito-gai.

Formari dagokionez, berriz, nik neronek ikusiaz gañera, ortik zear nabillela, itzez jaso ditudan inpresioak esango ditut.

1) Batzarrak, entzuleen aldetik, Akademi-egintza bat baño, *mitin* bat areago zirudiala; batzuren batzuek esaten bait dute, baita, norbaitzuek Euskaltzaindiari prestatutako *encerrona* bat izan zala ere.

2) H'ren kontra mintzatu ziran bi edo iru Euskaltzain, forma ez oso kortesean, ixillerazi ere egin zirala. Aietako batentzat latigilloak eta txisteak ere izan zirala, eta biontzat baita farra ta burla ez oso akademikoak ere.

3) Gure Lendakari Jauna bera, H-zaleak bazartu egin zutela, berak nai bezain H-zale bero arkitu etzutelako noski.

4) Itz bitan: irregularidade geitxo joan zala Batzar aietan; etzirala ur garbi izan, alderatzeko ere. Eta etzala arritzeko gauza, alako mitin-giroan, asko ta asko, mintzatuko zirakenak, ixilik egon naiago izan izatea, gero beren asarrea nolabait erakusteko asmoz.

Olako Batzar bat, nekez esan bait diteke, formaz, *plebiscito* jator danik.

Batzarraren bukaeran irakurri zitzaigun notaz beraz ere ba dago zer-esanik. Etzan izan nota argia; naasitxoa baizik.

Batzurentzako, Nota ura Batzarraren «erabakia» izan zan. Notak berak ez dio ori; «aurrerapen bat» dala dio baizik; aurre-rapen bat, berriz, ez da «erabaki» bat.

Nota artan ez da ezer «agintzen»; kontsejatu baizik, rekomendatu. Kontsejoak, berriz, ez du iñor «beartzen»; kontsejoak ez du santziorik, libre uzten du, bakoitzak derizkiona egiteko.

H'ri buruz ematen dituan arauak ez dira argiak. H bi bokalen erdian kontsejatzan du. Zer bi bokal, ordea? berdiñak bakarrik, ala desberdiñak ere bai? («Euskaldun» itzean, adibidez, *E* ta *u*'ren artean, bear al da H'rik?). Nola jakin bear degu zein bokalen erdian bear duan, eta zeinetan ez?...

Gauza au jakiteko, gero Iztegi bat argitaldu dala? *Argitaldu dala*, inpersonal da. Zeñek osotu du Iztegi ori? Ortikan zear diotenez, ortan ere izan zan oso garbi ez dagon zerbait. Bidasoaz beste aldeko H-zale batek bere gain artu zuala, edo emengoak egotzi ziotela lan ori egiteko arazoa; bañan gero etzala ausartu olako lan zalla egiten. Azkenik, ez bait dakigu zeñek egiña dan, eskurik-esku dabillen H'dun-Iztegi-saio ori. Nolanai dala, Euskaltzaindian ia iñork ez daki gauza au nola garbitu dan. Euskaltzaindiak ez det uste eman dion bere baietzik. Gauza presakaegi egin zan, bear dan garantiarikan gabe.

Beraz, berriz ere gauza bera: ez dala guzti ortan plebiscito jator baten formarik. Ez formarik, ez gairik.

EL USO DE LA LETRA «H» EN LA ORTOGRAFIA VASCA

El origen histórico del uso de la letra «h» entre nosotros es un origen turbio.

En los años de la post-guerra, cuando el Partido Nacionalista Vasco trató de reorganizarse, fue invitado a las reuniones el elemento joven por los supervivientes del Partido; y entre los jóvenes invitados se hallaba el escritor vasco antiguotarra Sr. Alvarez de Emparanza, que ya para entonces había empezado a usar el seudónimo Txillardegui.

En las reuniones, el Sr Alvarez de Emparanza perfiló desde el primer momento para el Partido una nueva orientación socializante-laicista. Desde luego proponía un cambio del lema del Partido «Jaungoikoa eta Lege Zarra», suprimiendo el primer elemento, Jaungoikoa. El doble cambio propuesto, naturalmente alarmó a los dirigentes antiguos, encontrando en ellos una resistencia muy fuerte.

Entre tanto, Txillardegui, perseguido por la Policía a consecuencia de un golpe audaz que dio en la Radio San Sebastián un Día de la Patria, tuvo que ausentarse a Bayona, donde continuó planeando un contra-partido vasco, de signo y orientación opuesta a la tradicional del fundado por Sabino Arana-Goiri. Txillardegui fundó la «Eta».

«Eta» es un anagrama, calcado en el «Jel» de Sabino Arana. «Jel», «Jaungoikoa eta Lege Zarra»; «Eta», «Euskera ta Aberria».

Txillardegui, al hablar de fundar su Eta, había apreciado en el Partido Nacionalista Vasco de Sabino Arana, un detalle muy práctico: además de la orientación y organización política, cierto elemento que le ganaba una gran simpatía en el País: «Sabino Arana funda una Escuela Vascológica «de *tendencia a la pureza del léxico*» complementada por una reforma de la Ortografía, a base de una escritura muy lógica, adoptando entre otros detalles la lerta «x» para el sonido de la «ch» francesa, y consiguiientemente la combinación «tx» para el sonido de la «ch» española.

Desde luego repudió el uso de la «h» para la ortografía Vizcaina y Guipuzcoana, adoptando además ciertos modos de expresión nuevas, como el uso del sufijo «—tar» para expresar el valor del «de» de los apellidos vascos etc. etc.

Txillardegui, para la propaganda de sus novedades político-literarias, organizó unas reuniones en Bayona, a las que convocó principalmente elementos jóvenes de la parte de acá. Y en las que, a imitación de Sabino Arana, expuso, además de sus ideas políticas, ciertos planes de nuevas reglas ortográficas, una de las cuales fue la que luego hubo de convertirse en «el caballo de batalla»: el uso por encima de todo, de la «h», letra repudiada radicalmente para la ortografía vizcaina y guipuzcoana, por Sabino Arana, repudio en el cual siguió las huellas del P. Cardaveraz, del siglo XVIII, que emplea en su «Eusqueraren berri onac» la frase típicamente repudiativa, «Achea... quen ortic».

Txillardegui razonaba esta su novedad «pro h», por la necesidad de unificar la Ortografía de las dos vertientes del Pirineo... Unificación, por cierto, que a cualquiera le parecería más fácil de realizar, desterrando los de la vertiente de allá el uso de aquel signo; pero que Txillardegui se empeñó en realizarla por el camino más difícil, de su imposición a los de la vertiente de acá.

Lo violento de la postura txillardeguiana se manifestaba aún más, por la circunstancia de que, hacía medio siglo que la propia Academia de la Lengua Vasca de los Azkue y Urquijo había dado por buena la Ortografía «sin h», que en efecto por espacio de cincuenta años han venido practicando pacíficamente todos los escritores de este lado, con la circunstancia de que se apreciaba que del lado de allá la «h» iba perdiendo terreno cada vez más, calculándose que, pacíficamente sin imposiciones violentas, al cabo de pocos años la «sin h» sería la ortografía vasca universal.

Tales son los antecedentes históricos, ante los cuales no puede extrañar que la gente vea una relación mutua entre la «h» y la Eta de Txillardegui, con todas las consecuencias.

Ahora bien, estando las cosas en ese punto, llegó al año cin-

cuentenario de la fundación de la Academia de la Lengua Vasca, fecha que se proyectó celebrar con Sesiones Extraordinarias en las Capitales de las Vascongadas y Navarra y Bayona.

En la reunión previa que tuvimos en Bilbao por Enero del año centenario de 1968, el Académico Correspondiente Sr. Aresti —uno de los asistentes a las reuniones de Bayona— lanzó la idea de aprovechar la oportunidad de las celebraciones centenarias para realizar en ellas la unificación literaria de la Lengua, aspiración de muchos de los estudiosos de ella para una mayor simplificación y facilitación de su estudio.

Inmediatamente se planeó la labor, escogiendo como punto de reunión el Convento de Aránzazu y encomendando la parte de la Ortografía al Sr. Michelena.

Llegada la fecha convenida —principios de Setiembre— nos reunimos en el Paraninfo del Convento medio centenar de asistentes, académicos y no académicos, muchos de estos últimos en plan de klak.

Las reuniones, en efecto, tuvieron muy poco de Académicas. Yo las he calificado en alguna ocasión, de verdadero mitin.

El Sr. Michelena empezó por decir que «suponía que teníamos que partir de las Conclusiones de Bayona» —conclusiones que la mayor parte de los Académicos ignoraba—. Dada la autoridad del Ponente —y no poco la actitud de los no académicos— nadie (nadie) se atrevió a hacer ninguna objeción, al principio.

A unas observaciones posteriores que hizo el lexicógrafo P. Plácido Mújica, el propio Sr. Michelena le obligó a callar. El veterano P. Inza, que también se permitió hacer alguna observación sobre la Historia de la «h» en la Literatura navarra, el Sr. Michelena le hizo callar, recordándole su ancianidad para opinar sobre estas cosas. Bien es verdad que en otro inciso el propio Ponente dijo como justificación de su postura, que los «jóvenes tienen la razón biológica».

Justamente se le escuchó con silencio al Sr. Pierre Laffite cuando dijo que por cuestión de unificación con los labortanos y suletinos, no hiciésemos ningún esfuerzo en introducir en nuestra zona la «h»; que ellos en Laburdi y Zuberoa son minoría, y el porvenir de la Lengua está aquí.

El Sr. Charriton se permitió hacer chistes de mal gusto a costa de los Obispos, chistes que cierto público celebró con aplausos.

A pesar del mal sabor de boca de todo ello, la formulación de las conclusiones en lo referente a la «h», en el sentido de que su uso era de recomendación y consejo, aquietó a los opositores. Más aún, cuando el propio Sr. Michelena hizo una excepción con respecto a las traducciones litúrgicas, a las que expresa y claramente eximió del uso de la discutida letra.

Con todas estas explicaciones, nos despedimos todos, cuando a pesar del carácter de recomendación y consejo del uso de la letra en cuestión, la Secretaría de la Academia empezó a usar la discutida letra, sin tino, en las Actas de las Sesiones de la Corporación. Naturalmente esto ha causado serio disgusto y una reacción violenta en la opinión general.

Desde luego a partir de estas actitudes se puede decir, que, por unos procedimientos tan poco académicos, se ha abandonado la Ortografía tradicional de la Academia de los Azkue, Urquijo, Eguzquiza, Altube, Eleizalde etc.

Tal fue, pues, el carácter de las famosas Sesiones de Aránzazu, en las que se quiere apoyar la obligatoriedad de la «h» aun para las Traducciones Litúrgicas, sesiones de la mínima cantidad de Academia por las cosas que se dijeron, pero sobre todo por la forma agresiva de las Sesiones en que se dijeron.

INCIDENCIAS EN LAS TRADUCCIONES LITURGICAS

Y ¿qué decir de la coyuntura en que se nos pide la adopción de la letra «h» en las traducciones litúrgicas? En este momento histórico ¿qué autoridad nos merece la Academia de la Lengua Vasca, aun prescindiendo de todo lo de Aránzazu? ¿qué hemos de opinar del funcionamiento de la docta Corporación en estos momentos, para obligarnos a un cambio de postura en la Ortografía de nuestras versiones?

Brevemente: nunca estuvo la Academia en más baja forma para formular semejante pretensión. Desde luego, nunca llegó a ser criticada su actuación, como en el momento actual.

Testigos: la doble campaña, del periodista Aizarna en «Unidad», y el folleto acusador del Académico de Número Sr. Labayen... Y no parece sino que la Corporación, al no saber defenderse de tales acusaciones, arremete contra el equipo de Traductores Litúrgicos. Táctica hábil, si no fuera muy gastada: la de «hacerse la víctima» de un enemigo al parecer débil, para tener el gusto de apuntarse un tanto con una victoria fácil: intimidar, en nuestro caso, a los Prelados Diocesanos, de quienes depende el equipo de traductores. Tal es toda la apariencia de este modo de obrar de la Academia.

El detalle de que el máximo alegato «anti-academia» procede de un miembro de la propia Academia, es revelador de un notable dualismo y descomposición en el seno mismo de la Corporación. Situación que se confirma por el hecho de la «no-asistencia» de muchos de los miembros de Número, a las sesiones mensuales—quizás de la mayoría de los miembros de Número— no-asistencia revelada por las Actas de las propias sesiones. Hay ausencias que resultan muy significativas. Y es que la Corporación está siendo arrastrada en estos momentos por una minoría audaz de Académicos Correspondientes, cuyas funciones están limitadas reglamentariamente a asuntos meramente gramaticales de la Lengua, pero ellos se mezclan en asuntos de régimen de la Corporación, y provocan acuerdos descabellados, como el de que el

Sr. Presidente dirija una carta de escándalo a los Srs. Obispos Diocesanos a propósito del asunto de la «h».

Este mismo hecho de la carta del P. Villasante a los Prelados Diocesanos —que, por cierto, ha ocasionado dos contundentes réplicas en la prensa diaria— es un índice más de la poca autoridad, de que en estos momentos están dando muestras, el Sr. Presidente y los miembros asistentes a las sesiones, que autorizan actitudes de este género.

Continuando en el recuento de los procedimientos irregulares de la Academia, es de destacar de un modo general la precipitación con que está procediendo en muchos asuntos relacionados con la Lengua; obra, desde luego, como quien es dueño y no servidor de ella, precipitando acuerdos que, aun «dando tiempo al tiempo» costaría mucho cumplir, y de pronto son imposibles, como v. gr. el de la unificación del auxiliar del verbo —que el propio Sr. Michelena dijo en Aránzazu era imposible proponer, y ahora, sin embargo, empujado por la impaciencia de los Srs. Correspondientes que abusivamente están actuando en el régimen de la Corporación, ha optado por patrocinar, con el peligro consiguiente de estrellarse una vez más en sus actuaciones prácticas—.

Creo que estos índices son suficientes a probar la poca o ninguna oportunidad para hacer una novedad en la Ortografía de nuestras traducciones por presiones de la Academia de la Lengua Vasca, a la que, por cierto, también yo pertenezco, si bien con ausencias que me es imposible evitar, dado el deficiente y molesto funcionamiento que observo en el seno de la Corporación.

* * *

Por lo demás y por lo que hace a nuestro equipo de Traductores, no hace falta recordar que él está actuando de muy antes que las asambleas de Aránzazu, actuando dentro de la Escuela euskerista tradicional de la Academia de los Azkue, Urquijo etc. con una producción literaria de varios tomos en folio, superior a la de cualquier otro grupo literario que haya actuado durante

este tiempo en el País, habiendo sido incluso galardonado con un premio internacional de mil dólares.

Es cosa que nadie niega la gran contribución de nuestra reforma litúrgica a la vida de la Lengua.

Aparte de ello, es de reconocer igualmente la labor de unificación del lenguaje literario, que, sin proponérselo, y desde los primeros momentos, ha realizado nuestro equipo, buscando de intento la máxima sencillez gramatical en toda su producción, labor realizada con el máximo empeño y escrupulosidad. Aparte de esto, el trabajo realizado en equipo por traductores de todos los dialectos juntos, es un procedimiento de los más eficaces, no sólo para lograr un texto lo más unificado posible, sino también para la unificación por selección de formas, en la propia Lengua.

Respecto a admitir reformas que vemos propugnadas por la Academia, la única que no admitimos es la de la «h»; por lo demás hemos admitido en la práctica de las ediciones, las dos o tres que son las más novedosas, como el uso del *dut*, *duzu* por *det*, *dezu*; *dena* por *dana*; el dativo plural en «-eri» por el tradicional «-ai»; el agente plural «-ek» en lugar del tradicional en los dialectos de aquende, «-ak»..., pero para los fanáticos, lo esencial es la «h»; letra que no admitimos nosotros por las razones que van expuestas, y además por otra razón de vida práctica, y es porque su admisión en nuestros trabajos nos acarrearía más impopularidad que popularidad, y con su admisión nos apuntaríamos más tantos negativos que positivos, exponiéndonos además a que muchos Sacerdotes que hoy leen el texto vasco, al hallarse con dificultades como la del «h» —las cosas, como son —dejarían la lectura vasca por la castellana, perdiendo con ello tantos muy importantes la vida de la Liturgia Vasca, y la propia vida de la Lengua.

* * *

En conclusión, nuestra impresión es que en este asunto «non conviene que se haga novedad». El equipo debe seguir trabajando como hasta ahora, que no está «el horno para bollos», ni de nuestra parte, ni de parte de la Academia de la Lengua Vasca.

BATASUNA ETA H, ETA ARANTZAZUKO BATZARRA

Euskaltzaiñak:

Naiago nuan nik, gai au puska batean ez ikutu. (Gure beste lagun batzuek ere iritzi ortako agertu zaizkit egun oietan). Bañan orain arte, ixillik egon geran arren, alde batetik eta bestetik, itz-egitera beartzen gaituzten ezker, itz-egitera nijoa: zentzu onezko pentsakizun batzuek guztioi agertzera.

* * *

Batzuren batzuek uste zuten nunbait, gai au Arantzazu'ko Batzarrean bukatu genduala. Gai aunditxoan zan, ordea, Batasunaren eta H'ren gai au, ola, iru eguneko Batzar bero batean erabakitzeko. Batasuna egiteko oñarriak —oiñ-arri batzuek— ipiñi, bai; bidea ebaki-edo, bai; Batasunaren teoria argitu, bai. Bañan, Batasunak zain aunditxoak ditu, ola, Batzar bakar batzuetan egin *egiteko*. Batasuna *egiten*, orain ari gera. Batzuen eta besteen iritziak entzunaz. Egiten *ari*; bukatu, ez.

Egiten ari galararik, ordea, praktikak erakutsi digun gauza bat, auxe da: h'k Batasuna desegin egin digula; Batasun sikologikoa urratu. H'k Batasuna ez, baño *bitasuna* ekarri digu. Bitasun sikologikoa, bitasun praktikoa. Eta baita bitasun teorikoa ere.

H'k Batasun berri baten teoria ekarri digu. Leen Euskaltzaindiak ba zuan bere Batasun. Orain h-zaleak beste Batasun berri bat ekarri digute. «Batasun zaarra eta Batasun berria»: bi Batasun. *Bitasuna*.

— H, Batasunaren etsai, beraz?

— Bai, alatsu.

Orain galdera bat: —Zer da bearrena: h, ala Batasuna? Batasuna bearrekoago ba degu, zuek ikusi, h'rekin zer egin bear degun.

* * *

ARANTZAZU'KO BATZARRA.— Zer indar, zer balore zuan Arantzazu'ko Batzarrak? Ondo ikusi bearra, ondo aztertu bearra dago. Batzuek eta besteak, «Arantzazu'ko Batzarra» bait darabilte aotan.

— Zer indar zuan? indar beartzallea, indar koertzitiboa? ala indar normatiboa, arau-indarra? Indar praktikoa? ala indar teorikoa? aginte-indarra? ala argi-indarra?

Mitxelena Jaunak berak, gauza au naiko argi utzi zuan: bere Lekzio ikasgai argi ederrean, garbi esan zigun: «Euskaltzaindiak ezin beartu lezake iñor». Bi aldiz esan zigun. Ikasgaien asieran, eta ikasgaien bukaeran: *Euskaltzaindiak ezin beartu lezake iñor*, berak ipiñitako Batasunaren oiñarri teoriko aiek praktikan ipintzera.

Izan ere, Mitxelena Jaunak ondo zekian, Euskaltzaindia ez dala Euskeraren «jaun ta jabe», Euskerari olako edo alako izaera bat ezartzeko; Euskeraren jaun eta jabe Euskalerrria da, Euskalerrria bera. Euskaltzaindiak euskaldunai bide bat erakutsi, bai; bide bat argitu, bai; bide bat ebaki, teoriar, bai: bide bat ebaki, nai duanak edo derizkionak jarraitu dezan; bañan bide ortatik ibiltzera iñor beartu, ez. Euskaltzaindiaren erakutsiak —Mitxelena Jaunaren erakutsaldiak— indar normatibo izan dezakete; bañan indar beartzallerik, ez. Ortarako Euskeraren jaun ta jabe izan bearko luke.

Beste itz batzuetan ere, gauza au esan eta argitu diteke.

Arantzazu'ko Batzarra, etzan izan, Eliz-Batzarrak izan oi diran bezela, *Batzar dogmatizante*. Elizak ba du, Sinismenaren iturrien jabetasun zerbait; eta jabetasun orren indarrez, Elizak beartu litzazke eliztarrak, Berak erabakitako dogma bat sinisterraztera, eta sinisten ez duana *herege* aitortzera.

Bañan, dogmaz gañera, Elizaren erakutsietan, Elizak Doktrinan ba dira gauza batzuek, Elizak berak erabaki gabe, Elizako Erakusleak, Teologoak erakusten dituztenak: *Doctrina Ecclesiae*-edo esan oi diranak.

Ez da gauza berdin-berdiña bañan, ba du zerbait antz. Euskaltzaindiak ez du *dogmatizatzen*, ezin dogmatizatu lezake, Euskeraren izaerari dagokion gauzarik —Batasuna adibidez, edo Batasunari dagozkion bideak—; ezin dezake dogmatizatu, ezta bere

oiñarriak onartzen ez duanik kondenatu ere. Euskaltzaindiaren erakutsiak beti ere ori izango dira: erakutsiak, erakutsi teoriakoak, praktikan —Mixelena Jaunak esan zuan bezela— nai duanak jarraitu litzazkeanak, bañan nai ez badu, ez, obeto esateko, ez baderizkio, ez. Ori bai: Euskaltzaindiaren itzal onagatik, arrazoi-bide astunak bearko dirala aren erakutsiak ez jarraitzeko; bañan izan bait liteke olako arrazoi-biderik ere... Arrazoi-bide teorikoak eta arrazoi-bide praktikoak.

Arrazoi-bide praktikoak, ba dakizute, gero praktikan azaltzen dira. Orregatik gauza oiek ondo eramateko, denbora bear da, eta gure gai ontan, Erriak h'ri egin lezaioken arrera, jendearen reakzioak, alegia ikusi bear dira.

Eta teoriari berari gagozkiola ere, ba dakizute, garrantzi aundi samarreko gai baten teoria ere, erakusaldi bakar batzuetan dana ezin bildu ditekela. H'ren teorian bertan, Mixelena Jaunaren Arantzazu'ko erakuts-aldietan, zenbait punto gelditu zitzaigun, bear bezela aztertu gabe: adibidez h'ren Historia —h'ren Gramatika Historiko Comparada'ren azterketa on bat, alegia—; ots, «H Gipuzkoan eta Bizkaian nola izan zan, zer neurritan; eta noiz ta nola galdu zan» etab.

Guzti ori ondo aztertu gabe, ezin esan bait liteke gure oiñarri teorikoak berak ondo ezarriak dauzkagunik.

* * *

Puntu ontan dago, beraz, h'ren auzia Euskaltzaindiarentzat. Konpas ixil batean. Praktikan, Erriaren reakzioen zai; eta teorian, h'ren Gramatika Historiko-comparada baten bearrean.

Orra esan, esan bear nuana. Batasunari buruz zentzu onezko pentsakizun batzuek.

3.

Apendix «de re liturgica»

TRADUCCIONES DE LOS TEXTOS LITURGICOS

(A MODO DE MEMORIA PARA EL EXCMO. SR. OBISPO)

Al haber de traducirse a las lenguas vernáculas los textos litúrgicos, conforme al espíritu del Concilio Vaticano II, surgen en el ámbito vasco dos cuestiones, sobre las que me parece oportuno hacer algunas observaciones previas, primero acerca del número de versiones, y segundo acerca del carácter literario de las mismas.

A) Se ha de proceder a una traducción única para todo el País Vasco, o más bien a varias —tres o cuatro— conforme a las variedades dialectales más diferenciadas de la lengua?

Sabemos que la Academia de la Lengua Vasca ha mostrado algún deseo de que se confeccione una única versión. La razón de los Señores Académicos, es la de contribuir con ello a la solución de un problema muy preocupante para la Docta Corporación, y es el problema de la unificación de la Lengua. La Academia ve, sin duda, en el texto litúrgico un medio muy poderoso para la referida unificación, a base de un dialecto literario común. Un único texto, trabajando continuamente el oído de los fieles de las distintas zonas euskaldunes, contribuiría muy eficazmente a acostumbrarlos a matices de lenguaje no diferenciales, sino más bien de tipo común. Tal es el razonamiento de la Academia de la Lengua Vasca.

A la misma postura apuntan también otros, por otra vía: por la vía de la economía. Sería más económico el libro unificado, por la mayor tirada del mismo.

Nosotros opinamos que ambas posturas contradicen a una razón muy superior para nuestro caso, razón que aboga más bien por la triplicación de las versiones. Como quiera que se confeccionare la versión única, ésta vendría a ser un texto demasiado hierático, un texto lejano al oído habitual de los fieles de cada dialecto, con sacrificio consecuentemente de los sentimientos que la Liturgia debe producir en el pueblo fiel. Un texto hierático no interesa; para texto hierático nos bastaba con el Latín. Por lo demás la Liturgia debe ser para todos a este respecto un fin y no un medio para otros fines, aun cuando estos fines sean muy honestos e interesantes, como el fin de la unificación de la Lengua y la creación de un dialecto literario. Opino, pues, que estará muy bien, que en el Obispado de San Sebastián se proceda a la versión guipuzcoana, independientemente del Obispado de Bilbao y del de Bayona, con cuyas Comisiones traductoras, eso sí, se podrá estar al habla para ciertos detalles de la labor a realizar.

B) El lenguaje de las versiones habrá de ser verdaderamente popular, si bien sin faltar a la dignidad del mismo, dado el fin a que se destina. Para este fin, prácticamente estos últimos años ha habido un verdadero referendum popular acerca de la claridad y popularidad de algunas realizaciones traductoras que ultimamente se han hecho de los Libros Sagrados; referendum y control popular, que puede servir de guía en el caso.

Concretamente, las versiones del P. Olabide han sido apreciadas como de lenguaje duro, sin duda como resultado de ser el autor un vasco-parlante tardío, sin conocimiento de la lengua desde la infancia.

Los textos de Orixe en su Misal Diario, por su parte, se han apreciado como de cierta elaboración un tanto artificiosa, por el empleo de locuciones y formas arcaizantes y navarras, con tendencia sobre todo a la brevedad de expresión, con el consiguiente peligro de oscuridad.

Con todo, ambos textos pueden tomarse como base de consulta en la formulación de la versión litúrgica de que ahora se trata, con las condiciones arriba indicadas, de tender a una mayor

popularidad y a la máxima dignidad, sin caer ni en el academismo ni en la chabacanería.

Es cuanto espontáneamente se me ocurre anticipar a mi Rvmo. Prelado, en atención a una indicación que en su día me hizo, de contar con mi colaboración para esta campaña de Traducciones Litúrgicas, que son de actualidad en estas fechas.

Besa reverente el anillo pastoral de V. E. Rvma. su affmo. en el Señor.

Manuel de Lecuona

Andoáin a 14 de Abril de 1964.

P. S. Le incluyo tres ensayos de Salmos, como muestra de lo que a mi parecer deberán ser nuestras traducciones.

LAS TRADUCCIONES LITURGICAS VASCAS DE LAS EPISTOLAS Y EVANGELIOS

INFORME

Ante la posibilidad de que no todos los presentes tengan una información completa sobre el trabajo realizado en el Convento de los PP. Pasionistas de Villarreal de Urrechua, voy a exponer brevemente el proceso y la significación de dicho trabajo.

Días antes de la orden circulada desde Roma por nuestro Rvmo. Prelado en el sentido de integrar una Comisión, que se encargase de las traducciones litúrgicas, recibía yo una invitación de los PP. Benedictinos de Lazcano, para que me asociase a unos trabajos que en Villarreal se iban a comenzar en ese mismo sentido.

Yo, para aquellas fechas y obedeciendo a una insinuación, de hacía meses, de nuestro Rvmo. Prelado, tenía ya terminado un ensayo de traducción de las Epístolas y Evangelios, de la mitad del Año Litúrgico, material con el que me presenté, en efecto, en el referido Convento pasionista. Los PP. reunidos en aquella residencia —dos del propio Convento, Doctor y Licenciado en Sda. Escritura, más dos del Convento Franciscano de Aránzazu,

más uno de Lazcano— todos ellos a una insinuación mía de la labor que tenía yo preparada, juzgaron muy práctico que mi versión fuese, como quien dice «la versión piloto», sobre la que se realizase el estudio proyectado. Y desde aquella primera sesión, en seis o siete sesiones más se ha seguido este plan: lectura de mi versión, su cotejo con el original griego, variantes a tener en cuenta, redacción definitiva de las variantes, etc.

Tal ha sido el trabajo realizado, cuyo resultado es lo que podemos llamar «versión de Villarreal de Urrechua».

Como se ve, se trata de un texto, que fundamentalmente es el trabajado por mí a insinuación del Rvmo. Prelado. Las PP. de Villarreal, Aránzazu y Lazcano, me han servido de consultores casi exclusivamente para la interpretación exegética; interpretación exegética para la que, es verdad, yo contaba con, y había utilizado la versión castellana enviada desde Roma por manos de D. Ignacio Oñatibia; pero ocurrió que, a muy pocas páginas de mis lecturas, los exégetas de Villarreal apreciaron en la versión romana, y consecuentemente en la mía, algunas libertades mayores en la interpretación, sobre todo de las Epístolas de San Pablo; a consecuencia de lo cual optaron por buscar para la redacción definitiva una mayor fidelidad al original griego, cuyo texto durante todas las sesiones se ha tenido delante de los ojos, así como la Biblia de Jerusalén y varias versiones francesas muy críticas.

Por lo demás, y dada la urgencia del caso, y según se iban ultimando los trabajos parciales, se tuvo la atención de hacer a Roma al Rvmo. Prelado envíos de varias copias de la versión elaborada. Todo ello en plan de ayuda y colaboración a la labor a realizar en la Diócesis de San Sebastián, bajo la dirección del Rvmo., ayuda que, como es natural, es muy de agradecer a los beneméritos PP. que se adelantaron a la orden del Rvmo. Prelado, y a quienes yo por mi parte presté desinteresadamente mi colaboración.

San Sebastián, 1.º de Diciembre de 1964.

EL OBISPO DE SAN SEBASTIAN

San Sebastián, 18 de abril de 1964

Rvdo. Sr. DON MANUEL DE LECUONA
Andoain

Carísimo en Cristo:

Correspondo a su escrito de fecha 14 actual. Agradezco las muestras de versiones de textos litúrgicos y escriturísticos al vascuence y las sugerencias, que me hace, acerca de este punto importante de la aplicación de las normas conciliares. Como no es cosa de comentar por escrito (llevaría muchas cuartillas), hablaremos largo y tendido en la primera ocasión que se presente.

Con afecto le saluda y bendice en Cristo

† *Lorenzo, Obispo*

LITURGI - ITZULPENAK

Arantzazu'ko ikasleak-edo egindako itzulpen bat daukat maigañean, eta itzulpen ortatik oñarri artu nai nuke gaur, Liturgi-gauzetarako egin bear ditugun itzulpenak nolakoak izan bear duten nere iritzia esateko. Edozeñek ontzat eman dezaken iritzia, nik uste.

* * *

Liturgi-itzulpen on bat egiteko, bi gauza bear dira: a) exegesis on bat, interpretazio on bat; eta b) itzulpenean mintzaera bizia.

Exegesis ona, ez da gauza erreza, batez ere San Paulo'ren Epistolaetarako. Bañan uste bait-det, arantzazutarrak ortan gidari ona arkitu dutela A. Goitia'gan.

Mintzaerari buruz esan nai nuke nik zerbait.

Mintzaerak, bizia izateko, mintzaera errikoya bear du izan. Bañan «errikoyak» ez bait-du esan nai «arlotea». Erderaz esango litzaken bezala *lenguaje popular*, ez dala, alegia, *lenguaje chabacano*. Mintzaera arlotea, errikoya da, ori bai, oso errikoya; bañan ba'da mintzaera errikoi bat ere, arlotea ez dana. Arlotetasunaz kanpora eta arlotetasunaren gañetik, ba'da mintzaera errikoi bat, txukuna, garbia, egokia... Eta, ain xuxen, Liturgiako mintzaerak olakoxea izan bear du: txukuna, egokia. Iru arrazoi-bidegatik:

- a) Jaungoikoaren itzari zor zayon itzalagatik;
- b) Elizari ta Liturgiari zor zayon itzalagatik;
- d) Entzuleai zor zayen itzalagatik.

Iru arrazoi-bide oyeek, mintzaera txukun eta egokia eskatzen dute gure itzulpenetarako.

Ikustagun orain, nola erori giñezken arloterian, *chabacanerian*, gure itzulpenetan. Arantzazu'ko ikasleak egin diguten, Aben-

du'tik eta Eguerri arteko Epistolaen itzulpenak artuko ditut ortarako eredu.

* * *

«Jaungoikoaren Ebanjelioa zabaltzeko *apartatua* izan dan Jesuskristo'ren serbitzariak»; «fedearenganako *obedientzia*»; «etzien bat-ere *kasurik* egin»; «jayoberritzen gaituan *baiñuaren* bitartez»; «Zure *tronua*, Jainko ori, gizaldien gizaldietarako»; «*Take-ta...* aitortzeko eskatzen zaigun *ezkero*»; «Zugana *allatuko (baidira)* jentillen aberastasunak»; «abestu... *kantu inspiratuak*»; «Orixe da zuek eman bear diozuten *espirituzko kultua*»; «moldatu zuen buruak mundu onen *tajura*»; «igarriarazi dezaizuela... zer dan *perfektua*»; «ez eukitzeko zeron buruak diran baño *gaiagotan*»; «bakoitzak, Jainkoak eman dion *fedearen* neurrian»; «*faltsokeri* gabekoa izan dedilla zuen *karidadea*»; «Ez egin gaiztakeririk gaiztakeri *truke*»; «ze, au egiñaz, ikatz piztuak pillatzen dituzu»; «*ba*, egia esan, lagun urkoa maitatzen duanak, beteta dauka *orrek* legea»; «*guri* ta *Jaunari* imitatzen asi *ziñaten*»; «*Atleta* guztiak gauza asko *ukatuarazten* dizkiete bere buruai; eta zergatik?»; «olaxe ari naiz ni ere *korritzen*»; «*baldin* eta besteei *predikatu* ondoren neroni *deskalifikaturik* geratu ez nadin»; «bañan, *tira*, gauden ixilik»; «dana *diskulpatzen* du»...

* * *

Guti ontan arlotekeria asko dagola aitortuko ez duanik, ez dago inor. Gauza oyeek txukunago esan litezkela ikusten ez duanik ere ez; eta esan ere, errex.

Bañan ez bait-nua ni emen nola esatera. Zeurok dakizute orrenbeste.

Urretxua'n, 1964'gn. Urrillaren 15'eane.

LITURGIA ETA EUSKERA TA EUSKAL-LITERATURA

Edozeñek dakian bezela, Liturgiak ba'du anima, ba'du gorputz. Anima, Jaunaren grazia, Liturgiaren bidez ematen zaigun Jaunaren grazia; eta gorputza, graziaren estalki ta ontzia osatzen duten bi gauza auek: zeremoniak eta itzak —ikuskarria ta entzungarria—. Eta gorputz ontan, zalantzarikan gabe, itzak dira garrantzirik aundinekoak. Itzak Liturgian zeregin aundia dute. Liturgiaren ikuskarriak —zeremoniak— adierazten dute nolapait, sinbolizatzen dute, Jaungoikoaren grazia; bañan argien eta bertatikan-bertaen sinbolizatzen duana, beti ere, itza da. Itza, izkuntza.

Itz au Liturgian, Jaungoikoaren itza da. Gaur izkuntza gutietan mintzatzen zaigun itza, batez ere Batikano Bigarrena ezkerero. Artean, izkuntza bereziak izan ditu Liturgiak: latifia gure artean; eta greziera Sortaldean. Bañan Batikano Bigarrena ezkerero, Pentekoste berri bat izan du Jaungoikoaren itz onek. Jaungoikoa Euskeraz ere mintzatzen zaigu gaur. Ofizialki mintzatu ere. Bidezkoa zan. Eta ola gertatu da. Eta aitortu bearra dago, gauza onek, neurri ta malla ta kategori aundia eman diola, teoriz bederenik, gure Izkuntzari.

* * *

Bañan, ez bait-da teori-kontua bakarrik. Praktikan ere, Liturgian sartu izanak, bentaja aundiak ekarri dizkio gure Euskerari. Besteak beste, ba'dakigu, beste lekuren batean nolako bentaja ekarri zion olako trantze ta ereti batek, an artako izkuntzari: eslabitarren izkuntzari, alegia. San Zirilo ta San Metodio'k eslabitarren izkuntza Liturgian sartu izanari zor zaiola esan oida, izkuntza arek gero izan duan bizitza ederra. Gorriak ikusi bear izan zituzten anai biak gauza ori logratzeko —andik eta emendik—; bañan logratu zuten, eta geroztik eslabitarren izkuntzaren «sortzalle» aitortu oi-dira bi Santu aiek: aitorten ori egin zaie: *Slavonicae sermonis auctores habentur*. Euskerarekin ere

berdin gertatuko da. Aurrerapen aundia emango diola, alegia, Liturgiak Euskeraren biziari. Aurrerapena ta iraupena.

* * *

«Euskara, yalgi aldi plazara» esan zuanak, ba'zekian, izkuntza batek, biziko bada, iraungo badu, etxe-xulotikan plazara aterra bearra daukala; lotsaz ta bildurrez etxe-xuloan kokatzen baldin bada, ilko dala. Izkuntzarentzako, berriz, «plaza» asko dira munduan; eta aietan bat, orixe, Liturgia, Eliza.

Egia da, Elizan leku asko izan duala beti gure Euskerak. Besteak beste, Eliz-gizonak dira, ia orain arte izan ditugun euskerazko idazlerikan geienak, ia guztiak; eta Eliz-gaiak izan dira aiek beren liburuetan erabilli izan ditugun gaiak. Ez bait-degu izan apaizaz beste gañerako letra-gizonetan ia iñor euskal-idazlerik: ez Lege-gizonetan (Maule'ko Oihenart salbo), ez Medikuetan (Etxeberri saratarra salbo), ez Ixkribaurik (Aramayo'ko Barrutia salbo) itz-erdi bat ere euskeraz idatzi izan digunik. Diran guztiak Eliz-gizonak izan dira. Eta oraindik geiago dana —eta batzuren batzuek aztu bide dutena —Elizak bere iganderoko euskerazko Katekesisen eta Homiletikaren bitartez, milla ta boseun urtean, eten-gabe gure errietan sortu ta finkatu digun euskerazko kristau-Kultura bikaña... Egia da, bai, Elizan leku asko izan duala beti gure Euskerak.

Bañan orain gertatzen dana, ez da ori bakarrik; eliz-gauzak euskeraz erabiltzea bat da, eta ofizialki erabiltzea, beste bat; Elizak ezagutzen dituan izkuntza ofizialetan bat, Euskera izatea, alegia. Gaurtandik, ez pulpituan ta Katekesisean ta Aitor-lekuan bakarrik, Aldare Santuan ere ba'du Euskerak leku, eta leku ofizial. Ortan dago alde: gure Euskera, Jaunaren Misterioak egi-teko izkuntza ofizial izatea.

Poza du, beraz, Euskerak gauza onekin. Poz aundia. Itzal aundia irabazi bait-du orrela iñoren aurrerako. Orain arte latifñez bakarrik entzun izan ditugun itzak, orain euskeraz ere entzutea. Jakiña, orrekin bakarrik dana egiña ez dagona, Euskerari bizirik iraunerazteko. Bañan orrek laguntza aundia emango diola, ori bai. Bestela izango ez lukean laguntza.

* * *

Itzal orretaz gañera, Liturgiak egingo dio Euskerari beste bentajarik ere. Aitortzeak ere lotsa eman bear liguken arren, egi-egia da, asko ta asko euskaldunek esan oi-duana: «Nik euskeraz ezin det irakurri». Bestek irakurtzen dietenean, ederki ulertzen dutela; bañan berak liburua eskuetan artzen dutenean, ez daki-tela irakurtzen. Phenomeno naasi xamarra da, izan ere, irakur-tzea. Irakurtzea, «oiturazko» ariera da. Oitu egin bear da izkun-tza bakoitzean irakurtzen. Ez da naikoa beste izkuntza batean oitua egotea. Ez da naikoa, «letrak ezagutzea». Oitura artu bear da. Eta gure artean, irakurtzen «dakiten» euskaldun askok eta askok, ez dute euskeraz irakurtzeko oiturarik artu. Ez dira iñoiz ere saiatu ortan. Eta gero, jakifia, «ezin dutela» esan bear.

Orain, ordea, Mezako liburuxka oietan, askok irakurri egingo dute. Eta pozik irakurri ere. Guztiok batean; elkarren leian. Orrek asko laguntzen bait-du lan ontan. Elkarren leia: irakurtze komunitarioa. Orrek ere —uskeri orrek ere— bentaja ekarriko dio gure Izkuntzaren biziari. Ez-iduriko gauza dalarik ere.

Orain, bukatzeko, uki dezagun Euskal-literaturari dagokion gaia.

San Jeronimo'ren bizitzan, beste gauza askoren artean, au esaten da: Erroma'ko Aita San Damaso'k aginduta, *Vulgata* derit-zan Itzulpena «garbitu-edo» egin bear izan zuanean, tentazio gogor bat izan zuala: Itzulpen arri aprikatar kutsu guztia kendu, eta dana izkera politago batera, ots, latin klasikora itzultzeko tentazioa; itz batean, Jaungoikoaren Itzarekin *joya literaria* bat egitea. —Belarrian min ematen nunbait latinista fin arri, aprika-tar kutsu trakets arek—. Bañan asmo oietan zebillela, Aingeru bat azaldu zitziola, eta, amets zoro arengatik zati-zati egin ondoren, *Vulgata*ren izkera bere artan uzteko esan ziola.

Ori ola izanik, Jaungoikoak latin klasikorik etzuen nai izan Bere Itzarentzat, latin aprikatar nolabaitekoa baizik. Etzuan nai izan, Bere Itzarekin *joya literaria* bat egiterik. Berak jakingo zuan zergatik. Eta nola-nai ere, egi ala ipui, auxe da egia: gure *Vulgata*k, izkerari dagokion ortan, leengo izaera berean jarraitu

duala orain arte, menderik-mende. Etzaiola iñoiz ere literaturaz-ko obetzerik opa izan, San Jeronimo'k amets-egin izan zuan be-zela.

Dana-dala, auxe da egia, berriz ere, gai ontan: apaintasuna ta literatura baño zorrago zaiola Jaungoikoaren Itzaren itzulpen bati, jatorriasuna (ots, autentikotasuna) eta argitasuna; eta, gure artean ere, Liturgiak bere itzulpenakin, ez diola, zuzen-zuzen ta bere egitekoz, Euskal-literaturari, Izkuntzaren bizi ta iraupenari ainbat laguntza emango.

Bañan au ere bai: emango diola bide. Liturgiatikan kanpo-ra egin litezken eta egingo diran literatur-saiotarako, gai ta gai-tasun aundiak sortuko dizkigutela, alegia, Liturgiaren Itzulpen xume ta itz-murriz jatorrak. Genero literario asko ta asko arki-tzen bait-dira Liburu Santuetan: edesti, epika, lirika, jakinduri: «orotarik» eta aukerako-eder. Izango bait-degu or, nun saia eta «nun lant» gure Literaturarentzat.

I

PREGUNTAS A MI «CURRICULUM VITAE»
AL NUM. 16 - LITURGIA

— Dice Vd. que ha sido una especie de Secretario General del equipo de Traductores Litúrgicos Vascos.

— En efecto. Las Diócesis Vascas, de Vitoria, Pamplona y Bayona, al advenir en el Concilio Vaticano II el Decreto en que se dispone que todas las lenguas del mundo católico dispongan sus correspondientes Textos Litúrgicos para la celebración de la Santa Misa en la correspondiente lengua vernácula, todas las Diócesis empezaron a constituir sus Equipos de Traductores oficiales.

Ya para entonces la Diócesis de Vitoria se hallaba dividida en las tres actuales de Vitoria, Guipúzcoa y Vizcaya. El Prelado de Guipúzcoa era el Dr. Bereciartúa D. Lorenzo.

D. Lorenzo empezó a preocuparse muy a tiempo. Recuerdo que en fechas muy tempranas tuvo conmigo una conversación.

Había en Guipúzcoa sobre la materia un precedente muy importante con el Libro «Meza Bezperak» de Orixe. Pero nuestro D. Lorenzo tenía alguna prevención acerca del texto orixeano: lo encontraba un tanto recargado de navarrismos; él tenía como ideal un texto más «guipuzcoano»... (El era natural de Vidania, en lo más céntrico de Guipúzcoa...). Y me había manifestado su deseo de un texto de aquellas características, alabando algún ejemplar de Salmos, labor de mis manos...

Cuando llegó el tiempo de concretar un tanto más los planes litúrgicos, dio como normas organizativas, que de toda Guipúzcoa se señalasen dos traductores de cada Arciprestazgo.

* * *

Entre tanto el Benedictino P. Mauro Elizondo, Superior del Monasterio de Lazcano, se me había acercado para que también yo acudiese a unas reuniones de trabajo, que se habían ideado, para Villarreal de Urretxua, Convento de PP. Pasionistas, para trabajar en trabajos litúrgicos, a imitación de lo que los PP. Benedictinos de Belocq tenían organizadas; reuniones a las que me pareció deber sumarme, como lo hice en efecto.

GURE LITURJI - LANAK (HISTORI - APUR)

Gure Liturji-itzultzalle-ekipoaren Historia esateko agindu ditate. Historia txikia; Historia episodikoa, anekdotikoa. Amalau urteko Historia; 1964'ean asita aurtan artekoa; itzultze-lanetan asita, gaur Mezako Liburu galanta argitaltzen degun artekoa. Liturji-Itzultzalle-ekipo baten Historia. Eta Historia, neronek bizi izandakoa. Ez nik bakarrik, nerekin batean Ekipo osoak. Eta, nik bezelaxe, Ekipoko beste edozeñek esan lezaken Historia; bañan, nunbait, danetan zaarrena ni naizen aldetik, neri egotzi datena.

Bear bada, ez da izango Historia osoa. Nik neronek parte izandakoa bakarrik esango bait det. Bañan, nolana dala, naiko

Historia interesgarria, gero etorriko diranentzat. Historiaren beraren egunak berak oso interesgarriak izan bait ziran. Batikano II'enean Liturjiari dagozkion Erabaki Dekreto berri ta berri-tzalleak eman ziraneko egunak. Eta, batik-bat, Kontzilioak Liturjia Erri bakoitzak bere Izkuntzan egiteko agindu zuaneko egun gogoangarriak. Guretzat, euskaldunontzat, oso gogoangarriak. Orduan lortu bait genduan, gai ontan izan genezaken ametsik gozoena egi biurtzea: Liturji-Liturjia —Meza Santua— asi ta buka, dana euskeraz ematea.

Ortarako, ordea, Meza emateko, euskerazko *Missala*, «Mezako Liburua» prestatu bear bait zan. Ortarako, berriz, Latiñezko Textu Jator Orijinala euskeratu bear... Euskerazko lan orren pe-ripezia eta pasadizuak konta nai dizkitzet nik nere irakurraldi ontan.

Eta asi gaitezen.

DON LORENTZO'RI ESKERRAK:...

1964'gn urtea zan.

Gure Gotzai, Don Lorentzo Bereziartua gogoangarria, Erroma'n zegon, Batikano II Batzarretan. Esan dezagun, asiera-asierako, arrix bereziki zor diogula euskaldunok gure *EUSKERAZKO LITURJIA*. D. Lorentzo'ri, eta D. Lorentzo'ren izaerari, izaera kanonistari.

D. Lorentzo «kanonista per antonomasiam» genduan. Deretxo Kanonikoaren mania bezelako zerbait zuan ezurretaraño sartua. Eta —Zeruko gure Jaunaren gauzak!— mania orretaz baliatu zan Jauna, gauza au bere puntura eramateko.

Nik ez dakit, D. Lorentzo'ren barrunbean —bere kontzientzia pastoralean— gauzak nola ibilli ziran, Kontzilioko Gotzai guzien artean Dekreto eder ura eman zutenean. Seguru asko, Euskalerrri'ko izkuntza-egoera etorri zitzaion gogora: «Donostia'ko Eliz-Barrutian Erria euskalduna degu» esango zuan; «nik, beraz, nere Eliz-Barrutian euskerazko Liturjia ipiñi bear det. Besteak beste, neri Deretxo Kanonikoak ezartzen dit gauza ori».

Ola esango zuan; eta Deretxo Kanonikoarekin topo egitean,

guk dakigu nolako «mutilla» jartzen zan gure Gotzai kanonista...

Batikano'ko Erabakiaren ondoren, Espaiña'ko Gotzai-Batzar-
rrak izandako Biltzarrean gauzak nola joan ziran oso-osorik ez
dakigun arren, au beintzat filtratu zan gure belarrietara: «Gazte-
lera bakarrik Liturjian erabiltzeko geienak egindako ametsaren
kontra, D. Lorentzo izan zala, ezpañak dal-dal, lenengo itza atera
zua; katalana izan zala bigarren; (eta —orain damu, baño—,
ez Galizia'rik, ez Balentzia'rik etzala mintzatu).

Don Lorentzo etzan oso euskaltzale beroetakoa, bañan De-
retxo Kanonikoa oiñarritzat arturik, onela mintzatu bide zan Es-
paiña'ko Gotzai-Bilkura artan: «Nere Eliz-Barrutian nik jende-
rik geiena euskalduna det; eta nik Euskerazko Liturjia jarri bea-
rra daukat».

Eta, entzutea degunez, itz aiekin zuzpertz bide zan Gotzai
Katalana ere, bere Barrutirako beste ainbeste eskatzeko. (Damu-
rik, ez, ordea, Balentzia'koa, euskalduna zan arren, eta ezta Ga-
lezia'koa ere, galeziarra izan arren)...

* * *

Batzar aien ondoren asi ziran gure artean Liturjiaren euske-
ratze-lanak. Batzuek aurreraxeago, besteak atzeraxeago. Nolanai
dala, Bayona-aldeko Beloc'eko Beditarrak izan bide ziran, be-
realako batean mugitu ziranak. Egoki ere, ala bait zegokien; Li-
turji-gauzetan San Benito'ren semeak izan dira beti aurren eta
aurrelari.

Gure D. Lorentzo ere naiko azkar ibilli zan, bere aginduak
ematen, emen ere gauza auek bear bezela eratu zitezen.

Nik nere aldetik auxe daukat gogoan: Lazkau'ko Beditar-
ren Abata Mauro'ren eskutitz bat artu nuala egun aietan, dei bat
egiaz, Urretxua'n —berak eratuta nunbait— euskeratze-lan or-
tan Fraide batzuek astekoak zirala, eta ea nik ere parte artu nai-
ko nukean itzultze-euskeratze-lan artan. Abata Mauro'ren eskuti-
tzaren eguna, 1964'gn Otsailla'ren 13'a da.

Ordurako, ni ere, D. Lorentzo'ren beraren aginduz, lan oietan
sartua nengoan. Illabeteren batzuek ba ziran.

D. Lorentzo'k etzuan maite Orixe'ren «Meza-Bezpera»tako

itzulpena. Nafar-kutsu geitxo arkitzen zion; Berak, berriz, gipuz-
koar-kutsu geiago nai. Nik egindako itzulpenak, gipuzkoar-gipuz-
koarrak ziran. Eta oso gogozkoak gertatu zitzaizkion gure Go-
tzaiari. Ala esan zidan eskutitz batean.

* * *

Ni, Mauro Abataren eskabideari on-iritzirik, Urretxua'ra joan
nintzanean, nerekin batean eraman nuan, D. Lorentzoren agin-
duz egiña naukan lana. Urte-erdi bateko jaietako Irakurgaiak
ziran: Epistola ta Ebanjelio. Eta lan ura artu zan, gure Urre-
txua'ko Itzulpena egiteko eredu eta piloto.

Urretxua'ko Ekipoa, ekipo polita zan, sei-zazpi lagunek oso-
tzen genduan: Urretxua'n bertako bi pasiotar, Biblia-gaietan bata
Doctor eta bestea *Lizentziatus*, eta Lazkau'ko bat, bera ere Bi-
blia-gaietan *Doctor*, eta Arantzazu'ko bi, euskal-gaietan trebatuak,
eta ni Idazle Nagusi. Eta gure lan-egiteko era onela zan: nik
nere lan aietatik zati bat irakurri, eta danok, astiro-astiro ta zo-
rrotz gauza aztertu ondoren, gauzari forma eman.

Illabete batzuetan jarraituaz, bukatu geuduan urte guziko
jaietako Irakurgai-Liburua.

DONOSTIAKO EKIPOA

Bitarte ortan etorri zan Erroma'tik Gotzai Jaunaren agin-
dua Donostia'ra: sor zezatela Ekipo bat, eta egin, Eliz-Barrutiko
Eliza guztietan ofizialki irakurtzeko Itzulpena.

Ekipoa, Artziprestazgo bakoitzetik bi Itzultzallek osotuko zu-
ten, bi euskal-idazle trebatuk. Exejesis-lanerako, D. Martzelo Gaz-
tañaga Kanonigo Lektorala zegoen izendaturik.

Neretzako deia, gerotxuago etorri zan Erroma'tik. Gotzai Jau-
naren Idazle Sekretario Jaun, Panizo Kanonigoak ekarri zidan:
D. Lorentzo'ren agindu estua zuala, dei ori neri egiteko.

Donostia'ko «Padres de Familia» deritzan Etxean asi ziran
Artziprestazgoetako langilleak beren lanean. Ni ara joan nintza-
nerako egiñak zeuzkaten Mezaren asierako lenengo otoitzetatik
zenbait otoitz: *Kirie*, *Gloria* etab.

Bañan, geienean gertatzen dana: ni etorri nintzanerako, Artziprestazkoetako langilleak naiko urrituak zeuden.

D. Frantzisko Yartza Bikarioa zegon, Gotzaiaren izenean, guztioen kargu.

Ni etorri nintzanean, orduantxe ziran, ain zuzen, Irakurgaietan asteko asmotan. Nik, berriz, lan ura aurreratzeko, guk Urretxua'n egindakoa erakutsi nien. Eta lan aren gañean asi giñan jorra-lan berria egiten.

* * *

Orain, Urretxua'ko lanai buruz, nik oso gogoan det, nolako orraze estua ezarri zion A. Artola exejeta pasiotarrak, nik D. Lorentzo'ren enkarguz leendik egiña neukan textoari.

Texto ura D. Ignazio Oñatibia'k Erroma'tik bidalitako erderazkotik euskeratua nedukan nik. Bañan, lanean ari giñala, Urretxua'ko gure exejetak, alako, lasai xamar egindako itzulmenaren usaia artu zioten, batez ere San Paulo'ren Epistolaen zatiren batzuetan. Eta Erroma'tik bidalitako textuari usai ori artu zioten ezkeru, orraze estuagoa erabiltzen asi zitzaizkigun gure exejetak, batez ere Grekoari ardura geiagoz begiratuaz; geroztik asi bait gañan, asi, Greko orijinal jatorra begien aurrean maizago eukitzen, eta arekin batean «Biblia de Jerusalén» dalakoa, eta arekin batean Frantzia'n orduan argitaltzen ziran gauza berriak...

Orra bada: gauzak Donostia'n D. Martzelo Exejetaren eskutara etorri ziran, orraze bat oraindik estuagoan pasa bear izan zuten gure lanak. Bai Exejesis-aldeetik, bai euskeratze-aldeetik.

Bañan ez giñan aserretzen orregatik. Broma ederrak pasa bai, eta algara ederrik egin ere, gure ezta-baidaetan, batzuek besteen bizkarretik.

ITZULTZALLEAK

«Padres de Familia»ren Etxetik berealako batean igoerazi ginduzten Seminariora. Gotzai Jaunaren Gela ederrean ipiñi ziguten lantegia.

Gure Langille-lagunetan aipamen berezi bat merezi duana, D. Anizeto Zugasti da, langille gotor, lanera beti zintzo, itzultzalle seguru, azertu-aundiduna...

Legazpia'ko Parroko D. Antonio Sarasola, eta D. Bixente Aranburu, Segura'koa, biok ere oso zintzo etortzen ziran eta Euskera garbiaren txukuntasunari oso atxikiak ezagutu genituan beti. Eta aiekin batean D. Lukas Dorrontsoro ataundarra, baserri-euskeraren testigu jatorra. Eta aiekin batean, baita D. Jesús Gaztañaga, Laurgain'go Parrokoa, idazle jatorra iñor bada-ta, eta D. Jose M.^a Aranalde, Orixe'ren illoba, osaba zanaren urratsen jarraitzalle gotorra, etab.

Gaztañaga, Kanonigo Doktoralarekin batean, Greko Izkuntzan praktiko ta jakintsu D. Jose Luis Ansorena genduan gidari seguru.

* * *

Aipatzen ari geran aldi ori izan zan gure Donostia'ko lanaren lenengo aldia. Eta andik laister asi zitzaizkigun etortzen Nafarroa'koak ere: D. Jose M.^a Azpiroz, Lesaka'koa, eta D. Miguel Plaza Arrayoz'koa, eta D. Basilio Sarobe, Sunbilla'koa. Eta aiekin batean baita iñoiz D. Juan Goikoetxea zana.

Eta berandu gabe asi ziran baita Bayona-aldekoak ere; aien artean, txintxo-bai-txintxo, Pierre Andizabal Jauna, Ustariz'ko Seminariokoa, eta arekin batean, Jaun beneragarri «Dolagarai» bat, eta noizpait baita Pierre Narbaitz Kalonje Jauna ere...

Andik ez oso berandu, asi zitzaigun baita egunoro etortzen gure adiskide aundi ta bizkaitar jator A. Lino Akesolo, Karmelitarra. Aal zuanean baita, bere Bizkai'ko Bikario-lanak utzita, D. Karmelo Etxenagusia, argi ta azkarra.

Eta oietaz gañera azken-alde ontan aipatzekoa bait da gure Zuzendari orokor dan D. Eustakio Etxezarreta.

Amalau urte otan, iru aldi izan ditu gure lantegiak, Urretxua'ko Prologoaz gañera; lenengoa, gipuzkoarrok bakarrik egin genduana; bigarrena, nafarrakin egin genduana; eta irugarrena, bayonarrakin eta bizkaitarrakin, danok batean egiten diarduguna; danok batean eta batasunari buruz aal dan estuenik egiten ari gerana.

* * *

Lan-egiteko era, berriz, —leen ere esan degu-ta— onela izan da beti: aldez aurretik gutako batek prestatu eta ekarri Irakur-gai-orri batzuek; eta ekarritakoa nik guztientzat irakurri; eta be-reala, Gaztañaga Lektoralak, «per singula» analisis estu bat egin; eta ondoren, «per singula» berriz ere, danon artean euskerazko formarik jatorrena aurkitu, irakurritako troxoarentzako...

Eta kontsultarako beti ere eskura euki, Orixe'ren «Meza-Bez-perak», eta iñoiz baita Duvoisin'en Biblia ere.

Geienetan gai luzea. Errenkada bat egiteko, ordu-laurden.

HOC EST, ENIM,» ETA «PATER NOSTER»

Era ortan egindako gure lanaren eredu muestra bezela, bi pasadizu aurkeztu genitzazke guk ordu ontan. Mezerdiko «Hoc est *enim* corpus meum» eta Jaunartze-aurreko «Pater noster»a. Lenengoa, Iruñea'ko Ugarte'n egiña, eta bigarrena Estibalitz'en.

Guk, «Hoc est *enim* corpus»ko, *enim* orri jaramonik egin gabe, «Au nere gorputza da» soillik itzuli genduan. Bañan D. Lorentzo'k, ori jakin zuanean, mandatari bat bidali zigun Donostia'tik Ugarte'ra (D. Frantzisko Yartza Bikarioa bera) «Au nere gorputza *da-ta*» jartzeko aginduaz. Guk latinezko *enim*, grekozko *gar* ori, frasearen joskeraz, beste gabe, naiko esana zegola uste bait genduan, konjuntziorik gabe, alegia; bañan Gotzai Jaunak konjuntzioa *expresse* ipiñi bear zala uste zuan, latinez eta grekoz *expresse* an zegolako. Eta ola, «Au nere gorputza da»ren orde, «Au nere gorputza *da-ta*» ipiñi genduan.

* * *

«Pater noster» egiteak oraindik garrantzi aundiagoa zuan, eta kosta ere, geiago kosta zan.

Formula «ekumeniko» bat egin bear zan, eta ortarako ikusi, ekumenetarrak —protestanteak berak-eta— nolako itzulmena egi-ten zuten, zer kurpil ematen zioten gauzari.

Eta, lenengo-lenengo, «Aita gurearen» orde, «Gure Aita» ipi-ñi genduan.

Eta «santifikatua izan bedi» egiteko, «santu» izena aztertu genduan. Exejesis-zaleai galde-egin eta «santu» itzak, gutxi-gora-beera, «berezia, apartekoa» «transcendens» esan nai duala erantzun ziguten; beti ere «kódex», «agios», «sanetus» itzak ori esan nai izaten duala, bai Jaunarentzat Berarentzat esaten danean, bai kreaturaentzat esan oi danan («sanctum Damino», «Jaunarentzat berezia, gordea» etc.). Eta ori esateko, gure inguruko izkuntzetan, «sanctum» radicala erabiltzen dan ezker, guk ere «done» ta «donetu» esan gabe, *tuta conscientia* obe genduala euskeraz ere latinezko «sanctum» radical itza erabiltzea.

Eta erabaki ori artu ezker, esaera nola formulatu ikusi bear zan.

Esaera, berriz, pasitan bait dago, bai latinez, bai grekoan (*Santificetur, agiaszeetoo*) eta imperativoan, irugarren pertsonan, edo, obeto, inpertsonalean bait dago, guk ere, itzez-itzez egitekotan, pasiban ipiñi bear genduan, inperativo pasiban: «Santutu bedi zure izena».

Bañan, ortara baño leenago, «santutu»ren kakofoniaz gañera, galdera bat zegon or egin bearrik: «Zein da santutu orren egillea? zeñek santutu bear du? guk? ala beste norbaitek?... Bai bait dirudi, ortarako zordun bezela-edo, guk izan bear degula santutzalle, Jaunaren izenaren «santutzalle». «Santu dezagula» beraz?

Exejetai galdetu bearra zegon, beraz, berriz ere: —Nork santutu bear du Jaunaren izena? guk lurrean? aingeruak zeruan? zeru-lurrak beren ibillian?...

Eta gure exejetaen erantzuna, onela izan zan: «Danok, guztiok. Eta Jauna bera da lenengo-lenengo bere izena eta bere burua «santutzen duana», eta guztiok gera Berarekin santutze-lan ortan ari bear degunok. Orregatik da, ain xuxen, gauza au pasiba-inperatibo-inpertsonalean formulatu bearra. Inperatiboan. Eta aalik geiena inpertsonalizaturik. Eta aalik geiena inpertsonalizatzeko, erabaki zan, erabaki, «santutu» esan bearrean —kakofonia bazturtuaz gañera— «santu izan» esatea: «Santu izan bedi zure izena». Zeñek santutu bear duan esatea baztarrera utzita, inpertsonalizatu. «Santu izan bedi gauza bera, bere baitan. Ez

gure baitan bakarrik, zor bat pagatuaz; baita *bere* baitan ere, bere izaeraren indarrez».

Iñork asma lezaken formulapenik egokiena; bañan baita ñork uste lezakean baño geiago kostatakoa ere...

«Agiaseetoo» grekoz, «Santificetur» latinez... «Santu izan bedi» euskeraz. Olaxe garbi garbi.

* * *

Beste itz minbera, «Etor bedi zure erreinua» izan zan.

Damurik baztatu bear izan genduan «betor» inperatibo inperitonal polit maitagarri ori: «betor». Bayona-aldean ez da aditz-forma ezaguna. Tamal aundia. Bañan gauzak, diran bezela. «Egin bedi» danok ezagutzen degu, eta batasun-legeak, danok ezagutzen ditugun formak autatzea eskatzen du.

* * *

«Egin bedi zure naia»ko troxuan, berriz ere inperatibo inperitonal «fiat», leen «santificetur» bezela, «egin bedi» itzuli degu, nork egin bear duan esan gabe, inperitonal «fiat», «egin bedi»: guk eta Jaunak berak, Berak eta guk, danok egin bearreko gauza.

Bañan troxu ortan ere izan genduan zer-pentsa. «Borondatea» etzan esangarri; eta Gipuzkoa'ko «naia», Bizkai'an «gura» esan oi da.

Ala ere, zerbait ezta-baida ondoren, amore-eman zuten bizkaitar «nobleak». Izan ere, bi baten kontra arkitzen giñan: Bayona-aldekoak eta Gipuzkoa'koak, Bizkai'aren aurka. Gauza garbia zan demokrazi onean.

* * *

«Zeruan bezela lurrean ere»ko «bezela» orrekin ere ezta-baida bera izan genduan. «Naiaren» kontra baño «bezela»ren kontra muturiago arkitu genituan bizkaitarrak... Berak «bezela»ren orde, «legez» edo «lez» esaten bait dute, bañan ontan ere —damurik baño— amore eman zioten geien-mayoriari. Oso demokra-

tikoki; ontan era «bi baten kontra» bait zegon gauza. Gauza garbia.

* * *

«Barkatzen diegun bezela»; «bezela» berriz ere. Bañan izan zan modu, xok au baztartzeko: «bezelaren»ordez danok «ezkero» ipintzea: «barkatzen diegun *ezkero*».

* * *

«Tentaldira eraman» gauza berria zan, orain arteko formulaen aldean; «tentaldian erortzen utzi» bait zan orain arteko formula. Bañan gauza argia zan, latinezko «inducas» *erortzen utzi* ez baño eeste zerbait zala; «inducere» garbi-garbi «eraman» dala, alegia. Eta ola gelditu da: «Eta ez gu tentaldira eraman», aditza infinitiboan utzirik, aditzaren jokabidearen oztupoak baztertuaz...

PENTEKOSTES BAT ESTIBALITZ'EN

Estibalitz'en egin genduan *gure* «Pater noster» ekumenikoa-ren lan fin, mee ta kraskakor au.

Euskalerra guziko Itzultzalle guziok batzartu giñan ortarako: Iruña'ko, Bayona'ko, Bizkai'ko eta Gipuzkoa'ko. Elizbarruti ba-koitzetik bi edo iru, «Jaunaren beraren Otoitz» zaar-berrituak guz-tion itzal eta aitormena izan zezan.

Lana bukatu zaneko Bazkaria, oso Bazkari sonatua izan zan, Estibalitz'ko Beneditarren Bazkaldegian. Orduan esan bait zan lenengo aldiz munduan, *gure* «Pater noster» zaar-berritu Ekumenikoa; bazkal-aurreko Otoitzean esan ere. Danok, alako daldara gozo bat biotzean sentitzen genduala. Pentekostes txiki bat bait-litzan...

«EDER GALANT ORI»

Orain, ordea, aurrera jarraitu baño len, Euskalkiak, Dialektoak, elkarrekin dituzten ez-berdintasun batzuek aipatu ditugun

ezkero, aipa dezagun beste bat-txo ere, guri zerbait lan eman zinguna. Beste puntu bat, alegia, gure lanetan elkarrekin oso «a dos» etorri ez giñana, alkarrengandik —damurik baño— berezi giñana: «deikia» *caso vocativo* esan genezakeana.

Gauza jakiña da, Bizkaieran eta Gipuzkoeran, askotan, *vocativa* dalakoa oso jator ta errikoiki, «ori» *demonstrativoarekin* egin oi degula. Adibidez, Meza Santuko «Epiklasis» dalakoan:

«Onen bitartez, Onekin eta Onengan
Zuri, Aita Jaungoiko guzieldun ORRI» («orri»).

Edo-ta, askotan esaten degun Sagara-Dei artako ura:

«Zuri eskerrak ematea,
Jauna, Aita guztiz Santu,
Jaungoiko guztieldun
betiereko ORRI» («orri» berriz ere).

Bayona-aldekoak, ordea, ez bait dute ezagutzen deiki-era jator ori; berak, Epiklasis dalakoa, beste onela egiten dute:

«Onen bitartez, Onekin eta Onengan
Zuri, Aita Jaungoiko guzieldunA»;

eta Sagara-deierakoan, berriz:

«Zuri eskerrak ematea,
Jauna, Aita guztiz Santu,
Jaungoiko guztieldun
betierekoA».

Ala ta guztiaz ere, ordea, guk, aiekiko batasunari baño gure jatortasunari areago amore emanaz, Mezerdiko bi deiki-vocativo oiek, «ori»ren bidez egin genituan, dakizuten bezela... salbo-ta arako Kopla Zaar ezagun artan kanta oi dan bezelaxe:

«Maria: nora zoaz,
eder galant ORI? («ori»).

Guk ere olaxe:

«Zuri, Aita Jaungoiko
guzieldun ORRI» (Orri»).

Gañerako Otoitzetan ere askotan gertatzen bait da olako deikiren bat; guk beti berdin: ORI, ORREK, ORRI...

* * *

Eta jarrai dezagun gure arian.

ERROMA'REKIN POLEMIKA

Bañan gure lanen bitarte artan *quid pro quo* señalagarri bat izan genduan Erroma'rekin, Erroma'ko Liturji Kongregazioarekin.

Asiera artan, Bayona ta gu, bakoitza geren aldetik, geren gisa asi giñan itzulmen-lan auetan; eta, agindurik zegon bezela, asi giñan baita, egiten genituan itzulmenak Erroma'ra, Kongregaziora bidaltzen ere. Bakoitza bere aldetik. Bi Itzulmen.

Bitasun orrek zerbait pentsakizun eman zien Erroma'n. «Nola diteke —esaten zuten nunbait— nola diteke, Erri bat eta Izkuntza bat izan, eta ala ere bi Itzulmen egitea?». Eta emendik norbaitek, Euskera beraren euskalki dialektoen elkarren arteko aldeak eta diferentziak, Erroma'n uste zuten baño aundiagoak dirala esan zielako, polemika-apur bat sortu ere sortu zan —Kongregazioko Mons. Bugnini alde batetik, eta gure A. Juso M.^a Mokoroa bestetik— Gazteleratik Katalanerara dagon añako aldea ta diferentzia ba dagola, alegia, Bizkaieratik Zuberoeraraño, eta zenbait gauzetan baita Gipuzkoeratik Bizkaieraraño ere, gipuzkoarren «emango diot»etik, adibidez, bizkaitarren «emongo deusat»era, eta berdin baita bizkaitarren «esango deusat»etik zuberotarren «erranen derot»era: «esango deusat», «erranen derot». Esan bait diteke, esan, aditz beraren iru euskalkietako iru jokabideak, askotan, egiazki, «irreductibles» dirala, —uztarri batean ezin uztartzekoak, alegia— bi izkuntzatakoak egiazki bait lirean...

* * *

Galdera oiek berak egin zituan Mons. Bugnini'k, Iruña'n, Liturji-kantai buruz an izan genduan Batzar orokar Nagusi batean:

ea, bada, orren alkarren alde aundiko ta orren alkarren diferentek diran Euskeraren euskalkiak. Eta baietz esan bear izan genion, Gaztelania ta Katalana elkarren diferente diran bezain diferenteak dirala zenbait gauzetan, aditz berboaren jokabidean batez ere. Olako egoeran ezin bait diteke itzulmen bakar-bakarra egin, Euskalerrri guziarentzako.

ITZULMEN BERTSIO BAKARRA

Polemika ta ezta-baida oiek zirala-ta nunbait, egin zuten gure Gotzai Jaunak, Iruña'n bilkura bat baño geiago. Itzulmena aal dan batasunik aundienean egitea lortzeko. Eta bilkura oietan artu zituzten erabakiak, auek izan bide ziran:

Euskerak iru euskalki dialektu aundi, oso markatuak dituan ezkeru —nafar-laburditarra, bizkaitarra eta gipuzkoarra— iru Liburu egin ditezela, Bertsio Itzulmen bakar batean, bañan iru formatu —bertsio bat, iru formatan, alegia; iru euskalkietako itzultzalleak beti ere elkarrekin lan-eginez, forma berak aukeratuaz iru euskalkientzako berdiñak diran gauzaetan, bañan euskalki bakoitzeko forma bereziak aukeratuaz, bakoitzaren formak egiazki «berezi *irreduktibles*» diranean, naiz dala aditz-jokoan, leen esan degun bezela (*diot* gipuzkoar, *deutsat* bizkaitar, adibidez), naiz dala lexikoan (*nai* gipuzkoar, *gura* bizkaitar), naiz beste zerbait gramatika-elementutan (*kin* gipuzkoar, *gaz* bizkaitar, edo emen aldeko *-gan*, beste aldeko *baitan*, *aitagan*, *aitaren baitan* etab. etab.).

* * *

Eta, ain zuzen, ola, elkarrekin lan-egiaz, ari izan gera eta jardun degu, Gotzai Jaunen Iruña'ko bilkurak ezkeru, geienean Donostia'n, bañan baita Ugarte'n eta Oharritz'en eta Donamaria'n Nafarroan, eta batez ere Estibalitz'en Araba'n.

Ola esan bait liteke, benetan, egindako Bertsioa, Erroma'k eskatu bezela, Bertsio bakarra dala, bañan denbora berean, gauzak berak eskatzen duan bezela, Bertsio *pluralista*, «iru formatu», aditzaren, berboaren jokabidean batez ere...

ERROMAKO ARGIA

Orain, batasun-kontu ontan argitasun aundia eman zigun guri, Erroma'ko Liturji-itzultzalleen Batzar Nagusian esan zitzai-gunak.

Asiera-xamarrean izan zan gauza. Batzarra, 1965'gn urtean izan zan. Eta D. Lorentzo Gotzai Jaunaren gomitz izan giñan an D. Martzelo Gaztañaga Kanonigo Lektoral Jauna eta biok. Batzar jakintsua izan zan benetan. Eta ona emen, Batzar artako erakutsi jakintsuen muin giarra guretzat. Orduan an artutako nota batzuetatik ariko natzaitzute.

«Izlari guztiak —diote nere notak— izlari guztiak, lau gauza eskatu zizkiguten Itzul-zaleoi:

- 1) *Fidelitas cum originali*: gure itzulketak latin orijinalarekin *a dos* etorri ditezela, kide-kideko izan ditezela; ortarako, lenengo-lenengo, texto orijinalaren exejesis on bat, interpretazio on bat egin dezagula.
- 2) *Popularitas, simplicitas, claritas*: izkera errikoia, errexa, argia izan dedilla.
- 3) *Dignitas, gravitas*; izkera itzal eder batekoa izan dedilla, onestasun eder batekoa, arlotekeriari gabea.
- 4) *Versio unica esto pro unaquaque lingua*; izkuntza bakoitzak itzulpen bakarra izan dezala».

Egiatzki, poza izan genduan guk, gauzak ain garbi ikusi genituan, eta ikusi lau eskabide oiek ain bete-betean betetzen genituala guk gure lanetan.

Lenengo irurak —*fidelitas, popularitas* eta *dignitas*— ondo beteak genduzkala, gauza garbi ageri zan. Eta orrek ematen zigun poza. Laugarrena da, zerbait explikazio bear duana. Gure lanetan, itxuraz eta axalez ez bait zan betetzen baldintza-kondizio ori, batasunezko baldintza ori.

Beragatik egoki izango da, ikus dezagun emen batasunaren baldintza onen gora-beera au.

BATASUNA

Erroma'k ezarri zizkigun lau baldintza auek —*fidelitas, popularitas* eta *unitas*— exejesis onean, baldintza *koordinatuak* dira, alkarren artean koordinatuak. Bigarrenari irugarrenak kalte egiten badio, irugarrenak bigarrenari amore eman bear dio. Konkretuki, errikoitasunari batasunak kalte egiten badio, batasuna baztatu bearra gertatzen da, gure lana, gure Itzulmena errikoia gerta dedin.

* * *

Zer da, ordea, izkuntza errikoia? noiz da errikoia izkuntza?

Euskalerrriak, Erri bat izan arren, lurralde ta errialde bat baño geiago dituan bezela, Euskerak ere, Izkuntza «bat» izan arren, euskalki bat baño geiago ditu: errialderik aña: bizkaiera, nafarrera, laburdi-zuberoera, gipuzkoera. «Euskera errikoia» errialde oietako bakoitzeko euskalkia da. Bizkai'an bizkaitarra, Nafarroa'n nafarra etab.

* * *

Bañan, «errikoi» izateak, beste gauza bat ere esan nai du. «Akademiko» ez izatea; akademiko ez dan zerbait; *anti-akademiko* ez bada ere, *extra-akademiko* dan zerbait. Bere izaeran eta arieran, Akademien inguruan baño areago Erriaren inguruan dabilena.

* * *

Bi gauza oiek dira, zalantzarik gabe, Erroma'ko arauak esan nai digutena, gure izkera «errikoia» izan dedilla eskatzen digutenean: Errialde bakoitzean erabiltzen dana izan dedilla, eta akademizismozko preokupazio geiegi gabea; erritasun-preokupazio-duna areago baizik. Eta ola, gertatzen balitz iñoiz, akademizismoak, Izkuntzaren bentajarako-edo —Izkuntzaren beraren «bata-sunerako», adibidez— akademizismoak errikoitasunaren kalterako dan zerbait eskatzea, Liturjiaren Itzultzalleak errikoitasunari

areago jarraitu dezaiotela Izkuntzaren beraren bentajari baño. Izkuntzarentzat batasuna ona bada, areago bait da errikoitasuna Liturjiarentzat.

* * *

Itz bitan: Erroma'n erakutsi zigutenaren araberan, bi gauzai begiratu bear izan diegu gure itzulmen-lanean: batasunari eta errikoitasunari. Gure itzulmenak —Bayona'ko, Bizkai'ko eta Gipuzkoa-Nafarroa'ko Itzulmenak— aalik alkarren antzekoenak izan bear zuten, eta denbora berean aal dan errikoienak.

Bañan errikoienak egiñez, itzetik-ortzera ta noiznai gertatzen bait da, iru euskalkien itzak elkarren antzekoak ez izatea —aditzaren jokabideko itzak, batez ere— olokoetan elkarren arteko batasunari baño geiago begiratu bear izan diogu errikoitasunari. Eta orrela pluralista bilakatu da gure Itzulmen-lana. Errikoitasunak «pluralismo»ra beartu gaitu.

* * *

Orrek, ordea, ez bait du esan nai, gure Itzulmena, gure Bertsioa «bat» ez danik. Itzulmena, itzulmen bezala —Bertsio bezala— bat da. Formaetan da pluralista. Bertsio bakarra, iru formaetan.

* * *

Neurri oietan zer-esanik ez dago, «Batua» deritzan euskalki berri ori ezin sar ditekela Liturjiaren itzulmenetan. «Batua» ez da errikoi iñungo Euskalkitan: ez Bayona-aldean, ez Bizkai'an, ez Gipuzkoa'n. Ez da kabitzen, beraz, Itzulmenari «errikoitasuna» eskatzen dion, Erroma'ko bigarren baldintzan. Batua'ren formak, beste forma guztiak baño atzerago bilakatzen dira Itzulmen-gai ontan. Ez dute Errikoitasunik.

«NUMERUS CLAUSUS»? ALA?

Norbaitek galde lezake orain, Itzultzalle-ekipoan nortzuk sar-
tzen ziran? eta ea «numerus clausus» egiten zuten? eta zergatik
zabalagotzen etzan numero ori? edo ifoiz ere pentsatu ote zan
numero ori zabalagotzea, apaiz edo prailez gañera, apaiz edo prai-
le ez diranen batzuek ere numero ortan sartuaz?

Gogoan ditudanak aipatuko dizkitzet.

D. Lorentzo'ren aginduz ogeita amairu apaiz gañan; Artzi-
prestazgo bakoitzetik bi. Bañan bereala urritu zan numero ori,
leen esana daukagun bezela. Beti ere gauza jakiña da, olako ba-
tzordeak poliki-poliki urritzen joaten dirala, batez ere luzerako
lana gertatzen danean; besteak esan zuana; «Los cuatro Evanje-
listas fueron tres: Enoc y Elías».

Gutxitu gañenean, bai, sortu zan zerbait *numerus clausus*:
batzutan zabalagoa, bestetan estuagoa. Begira izen batzuek; Eus-
kalerri guzitik.

Bizkai'tik, A. Akesolo, Etxenagusia, Garitaonaindia, Retolaza,
Gallaiztegi, Juarizti, Zarate...

Nafarroa'tik: Sarobe, Azpiroz, Satrustegi, Otxandorena, Pla-
za, Goikoetxea, Mujika...

Ifar-Euskalerri'tik: Andiazabal, Narbaitz, Lafitte, Iratzeder,
Larre, Iriart-Urruti...

Gipuzkoa'tik: Gaztañaga Martzelo, Artola, Basurko, Ansore-
na, Lekuona, Zugasti, Aranalde, Dorrontsoro, Amundarain, Orbe-
gozo, Mendizabal, Gaztañaga Jexux, Lekuona Juan M.^a...

* * *

Numerus clausus'ik eukitzeko agindurik etzegon arren, prak-
tikan beti ere olako zerbait gertatzen zan. Izan ere, adibidez,
apaiz etzanik, oso nekez sar zitekean gure ekipu artan. Euskal-
gauzetan jakintsu izatea, etzan naikoa. Biblia-gaietan ere jakitun

izan bear zan. Eta, denbora berean batzarretara etortzeko, beste
zeregiñetatik naiko libre egon bear zan; astegunetan batzartzen
bait gañan, eta urte askorako lana izan gañera; eta ola, prak-
tikoki, lan ortan Apaizak bakarrik ari gañezkean. Eta orregatik,
gai ontan ezer erabakirik etzegon arren, praktikan Apaiz eta Prai-
deen arteko *numerus clausus* zerbait bilakatu ta gertatu izan da
gure Ekipoa.

* * *

Dana dala, eta entsaio bezela, an , gure lanen asiera-aldean,
Yartza Bikario Jaunak, Mitxelena Jaunari erakutsi zizkion gure
lanan batzuek, ikusi zezan zer ta nola ari gañan. Eta Mitxelena
Jaunak gure lana oso ederretsi bide zuan, ori bai, gramatikazko
preokupazio geitxo ote genduan ezik, «ekarri zazu»ren ordez guk
«ekarri ezazu» esaten gendualako-edo... Ez bait da, gure iritzi
apalean, or olako akatsik, obegarri bat baizik; «Ekarri ezazu»ren
«e» ortan, alegia.

Izan ere, ain xuxen, guk, gure batasun-naiean beti ere xede
ori izan degu gogoan, fonetismoak alde batera utzita, Morfoloji
soil-soillari aalegin guztian jarraitzea, orrela izkelgien batasunera
urrago urbiltzen bait gera. Izan ere, bizkaitarren «ekarri egizu»tik
alderago dago gure, morfoloji soillezko «ekarri ezazu», zenbaiten
«ekarri zazu» baño: *ekarri egizu, ekarri ezazu*.

BUKATZEKO

Orain, gure gauza auen osagarri bezela, beste gauzatxo bat
gelditzen zaigu oraindik, aipatzeko: gure Gotzai Jaunak opa izan
dizkiguten jaitxoak: Erroma'rak bi joan-aldi batez ere.

Aietako bat, D. Lorentzo'ren garaian, gure lanen asiera sa-
marrean izan bait zan: Kontzilioaren azken-illabeteetan. D. Mar-
tzeloz Gaztañaga ta biok izan gañan.

Liturgia-Batzar berezi bat izan zan. Leen ere esan det. Eliza-
ren lau muturretatik etorritako Liturji-zaleak bildu gañan; eta

zenbait gauza zeatz-zeatz erabakitzeko bildu ere; Liturji-Itzulmen-gauzetan munduan diran jakintsurik jakintsuenak ekarri zizki-guten, gauza auek maisuki argitzera; eta ain zuzen, orduan eta aien aotik jaso genituan guk, itzulmenak bear dituzten, eta guk leentxuago ukitu ditugun, lanaren lau baldintzak, eta aien artean *batasunari* dagokion laugarren baldintza, eta aren gañetik dagon bigarrena: *errikoitasuna*...

* * *

Bañan, Erromeri artaz gañera egin bait degu gerora, azken-aldera, beste Erromeri bat ere, oraingo Gotzai Jaun D. Jazinto'ren garaian, bañan iru Gotzaiak gauza eraturik, autobus eder batean ogeitamarren bat lagun; Iruñea'ko D. Pedro Zabaltza baten gidaritzan erromeri, beti ta beti gogoan eukiko ditugun detalle aberatsez ornitua. Orduan lortu bait genduan, gure Kardenal Lerca-ro-rekin egoteaz gañera, Aita Santu Paulo VI'arekin ere egotea; ortaz gañera, izan diteken ibil-aldirik ederrena osotuz, Asis'en eta Napoles'en zear, humore oneko folklore-apur bat ere aldian bein sartuaz.

* * *

Eta ez noa ezer geiago esatera, gure Itzulmen-lanen anekdotario bezela eskatu didaten itzaldi nolabaiteko ontan.

Orra esan.

II

EUSKERAZKO LITURJIA

(ITZALDI)

Jaun, Andreok:

Guziok dakizute II Batikan-Kontzilioaren aginduz orain Liturjia euskeraz egin dezakegula; eta ortarako lanean ari gerala Euskalerriko bost Diozesaetako zenbait Apaiz eta Fraide.

Zer esan nai du guretzat, Kontzilioaren agindu orrek? zer abantail dakarki gure Kristautasunerantzako? zer, gure Euskerarentzako?

Galdera oiei erantzun baño leen, finka dezagun argi ta garbi, euskal-Liturjiaren problema bere neurri jatorrean. Ori egin gabe, zenbait gauza errex naas bait litezke elkarrekin, bear dan argitasunaren kaltetan.

Sinplekeria bat izango da noski, bañan norbaitek pentsalezake, EUSKERAZKO LITURJIAREN BIDEZ, orain, euskaldunok gure Jaungoikoarekin euskeraz mintzatzeko bidea ba degula, orain arte ori egiterik izan ez ba gendu bezela.

Jaunari eskerrak, orain arte ere izan degu, euskeraz Jaungoikoarekin itz-egite. Ortarako Eleiz-Libururik —eder askorik— izan degu, gure otoitzak, naiz bakarka, naiz saillean egiteko.

Zer da, beraz, gaurko Liturjiak ekarri digun ori?

MEZA SANTUKO OTOITZ GUZTIAK —aurrenetik azkenena— orain arte Latiñez egiten ziran otoitzak eta irakurtzen ziran Jaungoikoaren Itzak, danak euskeraz izatea. Ots: orain arte Latiña ta Grekoa bakarrik izan diran bezela, orain gure Euskera maitea ere, Elizaren Izkuntza Ofizial izatea; Meza ta gañerako Sakramentu-itx guztiak euskeraz esan aal izatea... Malla aundi ta goreta ematen bait dio orrek gure Euskera, askok eta askok bazartuari.

Bear-bearrekoa da, gauza auek argi ta garbi jakitea, urak beren erretenetik atera ez ditezen, eta zenbait gauza oker pentsatu.

* * *

Norbaitek pentsatu eta esan ere bait du, Elizak nolako kaltea egin dion erriaren izkuntzari, bere Liturgia Latiñez ta Grekoz eratuaz.

Ikus ta examiña dezagun gauza au bere luze-zabalera osoan.

Elizak, asiera-asieratikan, bere Fundatzallearen aginduz, Sinismena mundu guztian zabaldu bearra zeukan; eta bere «zabalkunderako», ofizialki, orduko izkuntzarik «zabalduenak» aukeratu zituan: Grekoa ta Latiña.

Bañan, ala berean, Sinismena errien biotzean aal bezain sakon sakondu bearra zeukan; eta, bere sakon-lanerako —gero ikusiko degun bezela— bere Kateketikan eta Omiletikan Elizak erriaren izkuntza erabili izan du beti: nunean-nuneango izkuntza...

Elizak bezela antziña artako Filosofi-Eskolak ere, Kulturaren eta Jakinduariaren zabalkunderarako berdín egiten bait zuten: Alexandria'ko Eskolan Grekoz mintzatzen ziran, an, Sortaldean; Latiñez, berriz, Sartaldeko Unibertsidadeetan —Unibertsidade guztietan— gero ta gero ere: zala Frankoen Akuisgran'en, zala Angles'en Katterbury'n, zala Paris'eko Sorbona'n, zala Espainia'ko Salamanka'n, zala Portugal'go Koinbra'n... Grekoz Sortaldean; Latiñez Sartaldean. Kultura ta Jakinduriaren zabalkundea errextu bearrez egiten bait zuten Unibertsidadeak ori.

Berdin, baita, Elizak ere: bere zabalkundeetarako bide bat aukera bear, eta biderik oituen eta zentzu eder batek erakusten ziona aukeratu zuan: Grekoa ta Latiña, izkuntza internazionalak bezela...

Bañan, ala ere, beti ta beti ikusiko degu, Elizak bere eginkizun ortan ez dituala aaztu bein ere erri-izkuntzak —ontan, Unibertsidadeak baño demokratikoago jokatu bait du beti—.

Elizak bere Jakinduria —«Jesus gurutziltzatuaren Jakinduria», Sinismena—, *Aldaretikan* Latiñez ta Grekoz bezela, *Kadiritikan*, Kulpitotikan, erri-izkuntzan adierazi izan du: *Aldaretikan* Latiñez ta Grekoz «hieratikoki» «ots-egin», *proklamatu*; *Kadira-*

tikan erria bere izkuntzan *katekizatu*, Kateketikaren ta Omiletikaren bidez... Eliza beti ere oitura oni, bide oni atxikia izan bait da; eta ontan jarraitu izan du, orain 2.000 urteko Pentekoste aratik onuntz: *Audivimus unusquisque linguam nostram, in qua nati sumus.*

Eta ariera ori, Euskalerrian 1.000, 2.000 urtean, ez bait da utsaren urrengo gauza izan Euskeraren bizitzarako. Bear bada, Aldaretikako «ots-egite» *hieratikoak* zekarkeioken baño bentaja geiago ekarri dio Euskeraren biziari, Elizaren betiko (1.000, 2.000 urteko) ariera bizi bizkor orrek.

Guzti ori konbeni da gogora dezagun; ez, ordea, Liturjiaren abantailak mendratzeko ta mendratzeagatik; baizik-eta, abantailak eta kalteak, diran baño aundiago egin ez ditzagun, eta, berriz ere, urak beren erretenetik atera ez ditezen.

Gaur, XX Gizaldian, esan dezakegu, gauzak beste bide batera joan dirala. Gaur, ez Kadiratikan bakarrik, Aldaretikan ere Eliza gure izenean euskeraz mintzatzen zaio Jaunari, bere Meza Santuetan.

Egia esan, gezurra dirudi, orain 100 urte, XIX Gizaldian —Erromantizismo-garaian, Erriak beren buruaren jabe egiteko ain gogor jokaten asi ziran— gezurra dirudi, orduan Erri oiek Liturjiaren soro ta alor eder onen jabe izatera ez iritxi izana.

Nolanai-dala, noizpaiten buruan bederenik, pausua eman da; besteak beste, Protestantekeriaren bildurra gure artean bazartu danean. Pausua eman da; eta ordu onean eman ere.

«Ordu onean» diot; ez diot ordurik onenean. Eta gure Euskeraren aldetik ari naiz orain.

«Ordurik onenean»? Ez da errex esaten. Zer izango zan, gaurko Liturji-erabaki au orain eun urte —I Batikanoan, alegia— eman izan balitz? Ots:

Gure Irazustabarrena baten edo Aita Uriarte'ren, eta zuen Haraneder'en eta Leon'en garaian, alegia?

Ez da errex esaten.

Zenbait gauzetan orduan, euskal-esaerak-eta, jatorrago arkituko ziran: jatorrago, garbiago. Bañan beste zenbait gauzetarako, ez dira alperrikakoak izan, ezta gutxiagorik ere, itz bitan esateko, gure artean beintzat, geroztikako sabindarren alegiñak gar-

bitasunaren bidean, lexiko garbiaren bidean, alde batetik; eta Azkue zanaren eta Altube zanaren lan ain ondo sakonduak, joserkeria-Sintaxis ta beste zenbait problema jatorren bidean, bestetik. Lan eder guzti oiek ez bait dira izan alperrikakoak, gaur Liturgi-lanetan diardugunontzat... Eta, Liturgi-gaietaz ari geran ezkeror, zer esan, Orixe batek —Andereño donostiar Maritxu Barriola'ren eskabidez— Orixe'k egindako lan bikain arrigarriaz, ots, bere «Meza-Bezperak» deritzan liburuaz? Zer esan?

Duana duanari aitortu bear zaio.

Nik ez dakit, gaurko gure markak A. Uriarte'ren-eta garaian onduko ziran ala ez.

Dana-dala, Jaungoikoa bere bidetik ibilli da, gauza au guretzat eta Berarentzat egokiera on baterako prestatzen. Nik ala uste det. Ez gu obeak geralako. Bañan guk, gure apalean, izan degu Jaunaren grazi ori: orain arte egin dan prestakizun guztia probetxatzeko grazia, eta, orduko jaun aiek ez bezela, elkarren beroan —ekipoan— lan-egiteko grazia. Bañan ori gero ere aipatuko degu, eta goazen orain gure arira.

* * *

Nola izan zan gure lanaren asiera?

II Batikan-Kontzilioak bere erabakia eman bezain laister, asi ziran errialde guztiak beren prestakizunak egiten, itzulpen-lanetarako.

Ez noa emen, Belok'eko Beneditarren etxean zuek egin dituzuten lanak aipatzera. Gu Donosti-aldean lan oietan asi baño illabete batzuek leenago asiak zifñaten zuek.

Bañan gure aldean ere, zer esanik ez, ango Apezpiku Jaunak Madrid'en izan zituztela beren bilkurak, gauzak aalik ongien eratzeko.

Bañan, ikusten danez, Madrid'en, geienen iritziz, erdaraz itzulpen on bat egin ezkeror, dena egiña zegon; erderazko itzulpena naikoa zan; etzen besteren bearrik. Ikusten denez, an etzuten uste, ez euskeraz, ez katalunieraz itzulpenikan egin bear zanik. Nik ala det entzuna.

Gure orduko Apezpiku Don Lorentzo Bereziartua izan zan,

itza —bere itz daldaritsu ura— lenengo atera zuana, euskerazko itzulpenaren alde. Duana duanari aitortu bear zaio.

Bera izan ez balitz, katalanen bat-edo mintzatuko zan noski. Bañan bera izan zan, lenengo itza atera zuana; «Nere Eliz-Barrutian, Diosesan, (geienak euskaldunak ditut. Euskerazko Liturjia zor diet»).

* * *

Eta «buru-belarri» lanari ekin genion.

Eta, puntu ontara iristean, ba degu, Erroma'ko berri pozkarrari bat eman bearrik. Batasunari buruzko dokumentu bat artu degula, Erroma'ko Liturji-Batzorde Nagusitik; eta, ain zuzen, Dokumentu ortan ematen zaizkigun neurriak, eta guk erabiltzen ditugunak berdin-berdiñak dirala.

Onela dio Dokumentuak:

«Unica *habeatur* interpretatio:

b) in Misa, pro partibus ad «Ordinem Missae» pertinentibus;
a) pro omnibus Liturgiae partibus, quae directam populi participationem requirunt, prout sunt acclamationes, responsoria, dialogi».

Ots: izkuntza bera duten Diocesetan, batasuna izan *dedilla*:

b) Meza Santuko Ordinario Egunerokoan;

a) erriak kanta bear dituan zati guztietan: dirala otsaundiak, dirala respontorio-antzeko dei-erantzunak, dirala alkarrizketak...

Eta onela jarraitzen du Dokumentuak, gañerako zatietaz:

«Pro aliis textibus, unica interpretatio *commendatur*; attamen, ubi vera necessitas exstet, singulae Conferentiae Episcopales poterunt, aut communem interpretationem aptare, aut novam conficere».

Ots: Meza Santuaren Egunerokoaz beste, eta erriaren otsaundiaz ta alkarrizketaz ta erantzunaz beste —Irakurgaietan, alegia— kontsejagarri dala batasuna; bañan ezin-danean-edo, Apezpiku Jaunak berak ikus dezatela, zer ta nola egin...

Orixe bait da, ain zuzen, guk Irakurgaietan, Apezpiku Jaunen kontseilluz egiten deguna: Bizkai, Bayona ta Gipuzkoan, zati ortan batasun oso-osea ezin izanik, iru eredu errikoi-errikoi, egin,

batasunari al dan ondoen begiratuaz: alkarrekin lan-egiaz, redakzio-batasuna bederenik lortu, naiz ta lexikoan ta aditzean, berboan, irurok azke lasai xamar ari... Ori bait da, dakizuten bezela, guk urte batzuek onuztik jarraitzen degun bidea.

Eta digresio au egin degun ezkerok, jarrai dezagun, gure lana gaur nola egiten degun ikustera.

Gure lanak bi alderdi ditu: bata *exejesis*-lana; eta «euskeratze-lana» bestea. Neurri berean gure ekipoak ere bi sail ditu: *exejesis*-zaleena eta euskeratzalleena.

Lenengo itzulpen-saioa, txandan, gutako batek orri batean egiten du, «Jerusalen'go Biblia» eta euskerazko beste zenbait itzulpen-saioren aurrean egiña: dala Orixe, dala Olabide...

Zaio oni, *specimen a* esan bait dezaiokegu.

Specimen ori, guztion azterketa ta examinera sartzen degu bereala. Eta lenengo azterketa-saioa exejesus-zaleak egiten diote: ea Bibliak diona, an ondo artua dagon. Azterketa ta examina sakona benetan, eta Antzifñako Testamentuan, zalla ere bai.

Eta orren ondoren, euskeratzalleen lana: ea or esan nai dana, *specimen a* ortan euskeraz ondo esana dagon; eta bestela, nola esan litekean, euskerarik jatorren, errezen eta argienean...

Arazo ontan, ezta-baida itzalak izaten ditugu. Batek bat diola, eta besteak bestea. Une ortan egiten ditugu, baita, gure batasun-saioak ere: ea bizkai, giputz, napar eta baiona-aldean elkarren arteko bestelakotasun ta diferentziarik gutxienean gauza nola esan litekean...

Eta zer esanik ez, ortan sortzen diran ezta-baidatan ordu luzeak ematen ditugula. Askotan zortzi lerro egiteko, ordu bete ematen degula. Pazientzi aundiko lana. Bañan ala egin bearrekoa, lan ondo egiñaren garantiarik izango bada. Bein-betiko egiten dan lana izanik, batez ere.

Estibalitz'en izan zan ortarako gure «Patmos»saioa. Aal zan batasunik zeatzenean eman bear genduan Otoitz-Sorta berri gutia; bañan punturikan minberaena, PATER NOSTER otoitza, alegia, dakizuten bezela.

An bildu giñan, Euskalerriko lau Diozesaetatik —Araba ez beste— amalau-amaseiren-bat lagun —Apaiz eta Fraide— lan bixi, mee, kilimakor ori, aal zan egokienik egiteko. Espiritu San-

tua uste bait det nik aste bi aietan, Patmos berri artan, argi-argi gure artean izan genduala.

Ikustekoa izan zan, besteak beste, PATER NOSTER berria egindakoan, nolako aogozo benetan gozoz esan genduan, otordu-otoitzean, lenengo aldiz, guztiok batean, arako *GURE AITA* «ekumenikoa»: *GURE AITA ZERUETAN ZERANA, SANTU IZAN BEDI ZURE IZENA... EMAIGUZU GAUR, EGUN ONTAKO OGIA...*

Bañan jarrai dezaiogun apur bat geiago, batasunaren gai oni.

BATASUN - MALLAK

Liturjiaren zati batean —Meza Santuaren *Egunerokoan*— zegon batez ere Batasuna egin bearra —Batasunik zeatzena—.

Bañan beste zatietan ere egin bearra zegon. Liturjiaren onerako, eta Euskeraren Bentajarako. Ez, ordea malla guztietan berdin.

Liturjiak ba ditu zenbait malla, Batasuna bear-bearrekoa dutenak; besteak, berriz, Batasuna ain bearrekoa ez dutenak, argitasuna ta jatortasuna bearrekoago baizik.

Bearren-bearrena, esan degu, *egunerokoan* dala; eta orrekin batean, *partes variables* esaten zaiena; oietxek bait dira Mezak dituan zatirik *komunitarioenak* —Komunitarioak alde batetik eta lirikoena bestetik— eta lirikoak diranez illun-antza poxi bat ongi datorlienak, zorabio naasian erri guztiak batean kantatzeko. Gure Jaunari esaten dizkiogun gorasarreak, berotasun ta fantasia areago eskatzen bait dute, argitasuna baño.

Alderantzira da, ordea, Irakurgaiak eskatzen duten giroa ta tonika. Irakurgaietan —*lekzionarioan*— Erriari itz egiten dio Eliza, Jaunak esandakoa aalik argien adieraziaz. Zati onek, Erriaren neurri-neurrikoa bear du izan. Eta ortan Batasuna ez da ain erreza. Erri bakoitzak bere izaera du; eta zati ontan «beretasun» ori gorde bearra dago, erri xumeari Jaungoikoaren itza ulergaitz gerta ez dakion, errex-errex baizik.

ERREDAKTAZIO - BATASUN

Bañan ontan ere —Irakurgaietan ere— leen ez bezelako *batasun* eder bat lortu degu, lau Diozesetakoak elkarrekin lanean ari izanaz.

Ba da Batasun bat, garrantzi aundikoa: «erredakzio-batasuna» esan dezaiokeguna. Lexikoan eta Gramatika-formaetan bakoitza bere gisa ari arren, ala ere, esan bear diran pentsamenen aria eta ixuria berdiña izan dedilla... Erredakzio-batasun ori ezin lortu bait liteke, elkarrekin lanean jardun gabe. Bakoitza geren egoitzan lanean ari izanaz, errez joan oi gera bakoitza geren bidetik, pentsamenen etorrian eta arian. Orain, elkarrekin lan-egiñaz, berriz, batasun ori, Irakurgaietan bertan ere, ederkitxo lortzen degu, leen lortzen etzan bezela... Ez bait da gutxi.

ORTOGRAFI - BATASUN

Eta, bukatzeko, zer esango degu gure Idazkeraz, gure Ortografiaz?

Gauza oni guk ez diogu garrantzi aundirik ematen.

Bañan, Euskaltzaindiak, orain berrogeitamar urte eratu, eta berrogeitamar urtez pakean erabilli duan Idazkerari atxikirik jarraitzeari ondoen eritzi diogu beti.

Eta onenbestez, bukatu det nere gaurko esatekoa.

EUSKERAREN BATASUNA LITURGIAN

(REPARADORATEN ITZALDI, APAIZAD)

LENENGO ZATIA

Batasunaren gaia sakontzeko esan didate.

Bear bezela egiteko, oñarri batzuek ipiñiko ditut, orbela bezela egan ibilli ez gaitezen.

Bañan galdera bat lenengo: Zer da izkuntzaren batasuna? eta nundikan dator batasunikan-eza?

Izkuntzaren batasunikan-eza, izkuntzaren berezitasunetik sortzen da. Batasunikan-eza, ballada bakoitzak izketan bere berezitasunak izatea da. Eta, gai ontan aitortu-bearra daukagu, gure errietan ballada batzuetatik besteetara ba'dala zenbait berezitasun izketan: berezitasun aundiak... Zuberoa-era ta Bizkaiera, edozein bi izkuntza bezain bi dira; bear bada, Gaztelera ta Katalanera bezain bi izkuntza. Bizkaitarrak *esango deust* (eta gipuzkoarrak *esango dit* bezela) zuberotarrak *erranen deraut* esango digu... *Esango deust, esango dit, erranen deraut...*

Zenbat kilometro daude Bizkaitikan Zuberoara? irureun? Nola liteke irureun kilometroren buruan izkuntza baten barruan orrelako berezitasunak izatea?

Izkuntzetako berezitasunak, Geographiak eta Kronologiak sortzen ditu. Geographi aundian, berezitasun aundi; bañan Geographi txikian ere, berezitasun aundi izan diteke, bitarte ortan Kronologi aundia badago. Asieran berezitasunak izkuntza baten barruan txikiak izan oi-dira; bañan, denbora-joanean, denbora-joanean, aundiagotzen joan oi-dira, baita Geographi txiki ta estusamarrean ere.

Ipiñi dezagun orain oñarri, oñarri historiko bat, gai oni buruz: «Zuberoa, Geographiz ez dago Bizkaitikan ain urruti; bañan Kronologiaz, bai». Gure izkuntza zaarra da, oso zaarra, Kronologia luzeduna; gure izkuntzaren berezitasunak oso aspaldidani-

koak dira. Orain sei milla urte, Bizkaian asi bide ziran, «Ostegun» esateko, «Eguen» esaten; Zuberoan, berriz, «Ortzegun». *Eguen; Ortzegun*. Izendegian ori, *Lexicographian*. Orrela ez bait-da arritzeko, *Lexicographiaz* landa, Gramatika-gaietan ere (Berboetan-da) orrenbesteko bereizkuntzak sortu izana: *esango deust, esango dit, erranen deraut*. Ez ordea, *Geographiaren* indarrez, *Kronologiaren* indarrez baizik... Zaarrak generala munduan: orixe da guztia. Gure izkuntza ere oso zaarra dala. Jaungoikoak berak opa digu olako zaartzaroa, olako bizirik-iraute luzea, eta... bizirik-irautearekin batean, olakoxe berezitasunak... batasunik-eza...

Bigarren oñarria: «Batasuna ez dala, arako *perfectio simplicitar simplex* esaten zaien aietakoa. Asko ta asko ari zaizkigu «*Batasuna!* ta *batasuna!*» arrenka, *batasuna* era-guzitako bentajaduna balitz bezela, alde guztietatik ona dan gauza balitz bezela. Batasuna izkuntzaren bentaja *bat* da; bañan askotan bentaja naasia, konplikatua, beste bentaja batzurentzat kaltegarri gerta ditkeana.

Irugarren oñarria: leengoaren osagarria: «Izkuntzak ba'duala, batasuna baño leenagoko ta bearragoko gauzarik, bentaja aundiagorik: argitasuna, adibidez»; eta balitekeala, batasuna guztien gañetik egin-naiean gabiltzala, ustekabe, kalte egitea, izkuntzaren bentajarik aundiena dan beste bentaja oni: argitasunari. Batasuna sortu-naiean gabiltzala, sortu dezakegu Euskera berri bat, berri bezain illuna, berri bezain ez-ezaguna, erriarentzat arrotza, ez-oitua, illuna... Izkuntzak, ezer bada-ta, argia izan bear du; ezaguna, errikoia; al balitz, itza aotik irten-orduko, erriak entzutean, bereala konprenditzen duan alakoa...

Laugarren oñarria: «Izkuntzak ba'duala beste bentaja bat ere, ez txikia: jatortasuna, alako jario gozo bat: gozo ta garratz denbora berean: grazia. Eta, berriz ere, batasun-billa gabiltzala, kendu dezaiokegu izkuntzari bere doai eder ori, jario gozo ori: jatortasuna; eta ola sortu, euskeraren orde ezperanto otz bat.

Jarrai dezaiogun oraindikan pixka bat geiago ari onixe.

— Nundikan datorkio izkuntzari bere jatortasuna?

— Batez ere, modismoetatik. Eta, ezer bada-ta, modismoak dira izkuntzaren berezitasunikan nabarmenenak; eta, beragatik, batasuna lortzeko, lenengo kendu bear diranak, «modismoak»:

ots, Gramatika arruntetik kanpora sortzen diran esaerak, esaundak, esateak...

Erderazko *ni de lejos* esateko, bizkaitarrak «ez urrik emon be» esango du; eta gipuzkoarrak, berriz, «ezta *alderatzeko* ere». Gramatika arruntetik kanpoko esaerak dira oiek. Batasuna lortzeko, berriz, biderik errezena, urrena, bidezkoena, Gramatika arruntez mintzatzea da; eta, jakiña, Gramatika arruntez mintzatu-bearrak, lenengo baztartzan dituan gauzak, oietxek izan odira: modismoak. Eta, ain xuxen, orixe da, izkuntzari bere jatortasuna galerazten dion bidea. (Eta orixe da, ain xuxen, gero esango dedan bezela, gure Kanon batuari gertatu zaiona, gutxi edo geiago: jatortasuna apurren bat gutxitzea).

Bañan auzi ontan, ba'da arritzeko zer bat: batasun-zale diranak dirala denbora berean, izkuntzaren jatortasun-zalerik aundienak: «Itzulpenak, euskal-kutsua izan dezala batez ere» diote. Euskal-kutsua, jatortasuna, alegia; eta, bear bada, ez dira konaturatzen, batasunik-ezak ematen diola izkuntzari bere jatortasuna, bere euskal-kutsu ederra.

— Zer egin orduan? —esango dezute—. *Lex adversus Promissa Dei? Absit.* —Jatortasunari jarraituaz, batasuna alde batera utzi? ala, batasunari jarraituaz, jatortasuna utzi alde batera?—. Ez bata, ta ez bestea. *Absit.*

Beltxak eta txuriyak

mendiyan ardiyak —dio gure koplak errikoi batek.

Zuk ere ez dauzkatzu

bentaja guziyak.

Ez da munduan ezer ta iñor, bentaja guztiak dituanik. Bentaja bat bestearekin osatu-bearra dago. Beltxa txuriarekin; txuria beltzarekin.

Batasunak ere ez dauzka bentaja guztiak. Bañan bera bere baitan bentaja bat da. Eta Liturgiaren izkuntza argitasunez, eta jatortasunez eta batasunez osatu bearra daukagu.

Bi bentaja oiek —argitasuna ta jatortasuna, alegia— izkuntzaren barru-barruko bentajak dira. Batasuna, kanpotiko bentaja da. Mallak daude bitarte ortan. Bañan, Liturgiaren izaeraz, al dan giñoan, al dan neurrik ederrenean —al dan, argi ta jator-

tasunaren kalterik gutxienean— izkuntzaren batasuna ere lortu bearra dago.

Eta diodan bezela, orren arrazoi-bidea Liturgiaren beraren izaera jatorrean dago.

Liturgiaren zenbait zatitan —gero esango degu zer neurritan— danok itz berak esan bear ditugu; ez dago, batek bat esan, eta besteak bestea esaterik. Liturgia, egite *komunitarioa* da bere izatez. Liturgiaren zati oietan, danok bat esan bear degu, danok bat kantatu bear degu.

Ori bai: batasun au, guk degun bezelako errian —leen esan dizutet, zer-nolako erri, izkuntzaz ain banatuan— zalla dala, gaitza dala lortzen. Bañan, ez izkuntzaren beraren berezitasunen aldetik bakarrik; baita beste zenbait arrazoi-bide psikologikoen aldetikan ere.

Guztiok dakigu, beti ere, batasuna lortzeko, batuk besteari «amore-eman» bear diola; batek utzi bear du beretik, eta bestearena artu; eta ori —esan bearrrik ez dago— beti ere kosta egiten zaigu, sentitu egiten degu. Eta senti ere, arrazoi-bidez: bakoitzak errezago ta azkarrago ulertzen bait-degu geren mintzaera; eta ulertu, ez errezago ta azkarrago bakarrik; baita «ao-gozoagoz» ere, *sapienter*, «saporezago», erderaz *sabroso entender* esango litzaken zer batez; ao-gozoz ulertze ori nor-bere izkuntzaren bakarraren doai aundi bat bait-da... bañan, ain xuxen —leen esan dizutedan bezela— batasuna egitean izkuntzak galtzen duan doaia. Batasuna egitean, izkuntza *hieratiko* biurtzen da; etxekeitasuna galdu egiten du...

Bañan, dana dala, berriz ere, batasuna guretzat nai-ta-ez egin bearrekoa da. Kontuz egin; bañan egin. Liturgiaren izaerak eskatzen du: Liturgiaren izaera komunitarioak.

BIGARREN ZATIA

Eta oñarri oiek —zentzu onezko oñarri oiek— ezarri ta finkatu ondoren, goazen orain batasunaren neurria ta muga Liturgian ikustera.

Eta, lenengo-lenengo, auxe esango degu: Liturgiaren zati guztiak ez dirala berdiñak gauza oni buruz.

Malla batekoa da, Mezako *Lectionarioa*, eta bestekoa Meza-
ren gañerakoa; eta gañerako ontan ere bi zati ditugu: «Variable»
esan oi-deguna, eta «Ordinario» esaten dioguna. Ordinario, ots,
Aldare oñeko otoitzak, eta *Kyrie, Gloria, Credo, Sanctus*, eta *Agnus*,
eta erriak Apaizarekin dituan galde-erantzunak. Variable,
berriz, Introitoaz gañera, Otoitzak, eta, Irakurgaien arteko bertso
ta abar: dala Bidezko, dala Alleluya, dala Eskeintze, dala Jau-
nartze...

Orain: *Lectionarioak* bere izatez duan zer-egiñez —erriari
Jaungoikoaren Itza adieraztea bait-du bere zer-egin —Lectiona-
rioak, nai-ta-ez, izkuntza errikoi-errikoa eskatzen du: errikoa,
argia, jatorra, erri bakoitzaren neurri-neurrikoa —dala Labur-
diera, dala Zuberuera, dala Naparrera, dala Bizkaiera, dala Gi-
puzkoera— bakoitzaren neurrikoa, erriak *facile et saporose*, errex
ta ao-gozoz Jaunaren Itza xurga dezan... batasunari ainbeste be-
giratu gabe...

Ordinarioa, Egunerokoa, da, ezer bada-ta, bere giroz, bere
ambienteaz, batasunikan geiena eskatzen duan zatia. Ezertan ba-
da-ta, Eguneroko zati ortan da Liturgia egite komunitarioa: Jaun-
goikoaren goraltzak oi u batean kantari ari geraneko zati ortan:
Kyrie, Gloria, Credo, Sanctus, Agnus eta *Pater* esaten edo kan-
tatzean...

Euskalerrri guztiko kristauak, Arantzazu'n-edo, Lourdes'en-
edo, guztion arteko Elizkizun Nagusiak egitekoan, guztiok formu-
la bera bear degu erabilli Mezaren Betiko zati ortan, biotzen ba-
tasuna itzaren batasunez agertu dedin... Iñioiz bada-ta, orduan
bear da bete, arako «Apostoluen Egiñak» dioten *cor unum eta ani-
ma una* eder ura. Guztiok itz berakin Jaungoikoa aitortu ta go-
ratu.

Bañan gai ontan tamal aundia danez, asieratik egiña dauka-
gun lanean «Eguneroko» zati ontan ain xuxen, ez daukagu bear
dan batasunik. Lan ori egin zanean, lasterkatxo ari izan giñan
—ari bear izan genduan— eta azkar-bearraren azkar-bearez, al-
karren berri gabe ibilli giñan: Bayona alde batetik, Bizkaya bes-
tetik, eta Gipuzkoa bestetik; eta ola iru formula atera ziran, al-
karrengandikan naiko bestelako ta berezi...

Bañan ala ere, zati ontan ere noizpait batasuna egin bear-

ko da... Alakoren batean. —Noiz?...— Etorriko da egunen bat, Mezaren Zati ortan mundu guztirako aldakuntza aundiren batzuek egingo dirana; eta orduan egin bearko degu gure lan «de-seatu» ori. Eta bitartean, jardun ta jardun, ea ortarako giroa —giro on bat— guztion artean prestatzen degun: gu geurok prestatzen geran, eta prestatzen ditugun, ortarako formularik egokienak. Lazkau'ko «Jaunaren Deia» asia da lan ontan. Gauza burutzeko, lan aundiak izango dira egin bearrak. Erriak alkarri amore-eman-bear aundia izango dute; berdin baita Liturgi-zaleak ere; Gotzai Jaunak berak ere erabilli bearko dute beren Agintezigor ta Indar guztia... Lan aundia benetan; bañan eguna etortzen danean, egin bearko dana... eta binbitartean, bideak errextu...

Iruñe'n jaso ditugun inpresioetatik atera dezakegu, prestakizun oiek nola egin.

Nolanai-dala, batasun oso-oso-osorik etzaigu eskatzen, ez *Lecionarioan*, ez Mezaren Eguneroko Zatian ere. Zenbait berezkuntzeri leku-emateko esan zaigu Erroma'tik; berboen bukaeran, adibidez, gipuzkoerak *dio* dionean, bizkaierak *deutso* esan dezakeala; bañan, ori bai, kantuan beaz-toparik egin ez dedin, inñolaz ere, biotan silabak berdin izan ditezela. Ori esan zaigu.

Gauza onen eredu bezela, Iruñeko Batzarrean egin diran Elizkizunetan kantatu dan Ereserki-Himno bat ikusi degu. Musika bakar baten azpian amalau bat izkuntzetan dauka letra; eta, ala ere guztiok batean kantatu dute batzarkide guztiok. Nola? letraren silabak berdin izanaz. Bakoitzak bere izkuntza bai; bakoitzak bere izkiak; bañan danok *metro* berean, ritmo berean.

Ritmoak du garrantzi aundia, kantatu bear danean; itzen soñuak baño garrantzi aundiagoa. Ritmo orixe da, guk, gure pres-takizun-lanetan geien-geien billatzen saiatu bear deguna.

Neurri ortan, berdin ipiñi dezakegu, naiz *erruki* (giputz eta bizkaitarrak ipintzen degun bezela) naiz *urrikal* (Bayona'koak bezela), formula biak ritmo bera duten ezkerro. Ez dagola, beraz, *urriki*'ra jo bearrak, batasuna lortzeko. *Urriki*, gañera, lekuri geienetan «damua» bait-da, ots, *pesar*, *arrepentimiento*, eta ez *piedad*, *compasión*, *miserere*, *eleison*...

Variables deritzaten zatiai buruz ere, ba'degu esan-bearrak, zerbait jakingarri: zati auek, *Introitoa*, alegia, ta Bidezko, ta Es-

keintze, ta Jaunartze, Psalteriotik artuak oi-diran arren, azke-antzera, libre-antzera artuak egon oi-dirala; beragatik guri ere etzaigula eskatzen, oien itzulpenak Psalteriotik ain zeatz egitea; eta beragatik Belok'eko Psalmoak ain zeatz itzuliak ez izan arren, erabilli ditzakegula, batez ere *Partes variables* oien bertsikulo-artean esan oi-diran antiphonak, Belok'ekoak lan au bere musika ta guzti egiña daukaten ezkerro batez ere. Ba'dakizute gañera Psalmo oiek laburdieratik bizkaierara ta gipuzkoerara itzuliak daudela, Belok'ekoaren beraren neurri-neurrian: guztientzako al dan batasunik ederrenean erabilli al izateko, alegia.

Kanon «batuari» buruz, berriz, auxe bakarrik esango dizutet: Bayona, Nafarroa, Bizkaya ta Gipuzkoa, laurok elkarrekin batzartuta egiña dagola, asi-ta-buka; batasunik ederrenean, beraz; ez, ordea, bat-ere bereizkuntzarikan gabe; berboen bukaerak bakoitzak geren erara egin ditugu: guk *eskatzan dizugu?* bizkaitarrak *eskatzan deutzuguz?* guk *bedeinka ditzazula?* bizkaitarrak *bedinka dagizuzala?* guk *eskeintzen dizkitzugu?* bizkaitarrak *eskintzen deutzuguz?* guk *bedeinkatu zuan?* bizkaitarrak *bedinkatu eban*... Guzti ortan ez bait-da milla diferentzi... Iruña'ko *Psalite sapienter*-egunetan, Erroma'ko Monseñor Bugnini Jaunak ontzat eman bait-digu batasun-era ori, berboen bukaerak bakoitzak bere erara egiñaz, alegia.

Gañerakoan, fraseai buruz, beste auxe: Urretxua'n Arantzazu'koak gogorazi zuan bezela, biz osatutako frase lotuak (*oraciones compuestas*, alegia) guk bi puska egin ditugu, bi frase labur; eta ola, *relativo* atzizkiak geienean baztatu egin ditugu. Adibidez, latinez orrenbeste aldiz datozen *relativo* guzti aiek: *Quae Tibi offerimus; quorum Tibi fides cognita est; pro quibus Tibi offerimus, vel qui Tibi offerunt; quam pacificare; quorum meritis; quam oblationem; Qui pridie; supra quae; intra quorum nos consortium; per quem haec omnia*. Ola, *per quem haec omnia* = «beronen bitartez»; *intra quorum nos consortium* = «(aien artean) iguzu leku»; *qui pridie* = «Berak, il-bezperan»; etab. etab.

Bear bada, kendu-bear oietan, guk geiena sentitu deguna, *vocativoari* dagokiona izan da —otoitzetan orrenbeste erabiltzen dan *vocativoa*—. Ba'dakizute, gure *vocativo* jator-jatorra, *demonstrativo ori*'ren bitartez egin oi-dana; adibidez: «Maria: nora zoaz

/ eder galant *ori?*». Bayona-aldean, ordea, ez da ezaguna vocativo-era au. Ango euskaldunak, gure kopla jator-jator ori, beste onela osatuko luteke: «Maria: nora zoaz / eder galanta?»... Bestelako jatortasuna ta gatza bait-du gure formulak, beste onen aldean! «Nora zoaz, eder galant *ori?*»...

Orregatik esan dizutet leenago, Kanon «batuak» jatortasunean zerbait galdu ez ote-duan. Olako formula bitxi ta bizi batzuek galdu bear izan bait-ditu, alkarri *amore-eman* bearrez...

Bañan, guk —giputz eta bizkaitarrok— egia esan bear bade-gu, ezin utzi gentzakean vocativo jator ori bertan beera uztea, Kanonean datozen vocativo guztietan; eta bi edo iru aldiz kon-tserbatu egin degu. Adibidez, arako, «ortarako egiten dizkitzute beren otoitzak Zuri, betiko Jaungoiko bizi ta egiazko *orri*», Bayo-na'koak «...Zuri, betiko Jaungoiko bizi ta egiazkoa» diotelarik. Eta beste au gañera: «eskeintzen dizugu, Jaungoiko aundi *orri*»: olaxe bizkaitarrak eta guk, Bayona'koak «eskeintzen dizugu, Jaun-goiko aundia» diotelarik. Eta baita beste bi aldiz ere; bañan oie-tan Bayona'koak berak gure formula bera erabiltzen dutelarik; «begiak zerura jasorik, Bere Aita Jaungoiko Guztialdun *orrena*»; eta bestean, «eraman ditzala, Zeruko Aldarera, Jaun aundi *orren* aurrera». Olakoxe ekilibrioak egin bear izan ditugu, izkun-tzaren jatortasuna gure Kanonean aal ainbeste gordetzeko.

Vocativoari buruz ori.

Fraser causalai buruz, berriz, ba'dakizute, guk, gipuzkoarrok —geienok beintzat, eta berdin Bayona-aldekoak ere— *causal-causal* «lako» atzizkiaz gañera ba'degula *causal-explicativo* bat *enim* ta *men* ta olakoak itzultzeko askotan erabiltzen deguna, eta, eman ere, fraseari alako etxeoitasan berezi bat ematen diona, ots, prefijo *bait*—. Bañan prefijo au ez bait-da ezaguna Bizkai-aldean, guk baztartu egin bear izan degu Kanon'etikan... damurik; be-netan, *amore-eman* bearrez...

Ain xuxen, *bait-orrek* guri askotan atzizki relativoaren orde-kotza egiten digu gure Liturgi-itzulpenetan; adibidez, arako *Quae Tibi offerimus pro Ecclesia tua Sancta, Catholica* artan —*quae* oiek ain dira zallak syntaxis jator batean itzultzen— guk gipuz-koarrok frase ori «Zure Eliza Santu Katolikuaren alde eskein-tzen BAIT-dizkitzugu» esango genduan, olaxe *BAIT* —eder bate-

kin; bañan orain, *bait*— ori baztartuta, «eskeintzen dizkitzugu» soil-sollik ipiñi degu... bizkaitarrai *amore-eman*-bearrez...

Ala ere, ba'dakizute noski, azken-orduan, eta gure Gotzai Jau-naren aginduz, *bait*— bat sartu bear izan degula, mezerdi-mezer-diko itzetan: «Au Nere gorputza bait-da» alegia, latinezko *enim* eta griegozko *gar* itzuli-gabe ez uzteagatik; Gaztelerriko Gotzaiak ere olaxe egin bait-dute, Ameriketakoakin batean... Bizkaitarrak, berriz, ba'dakizute *bait*-en orde, sufijo ta ipiñi dutela: *Au Nere gorputza da-ta*.

Eta bukatzeko orain, jardunaren ariak ontara ekarri gaituan ezkerro, itz bat geiago, prefijo *bait*— oni buruz: ez dala *bai*, nor-baitzuek idazten duten bezela, *bait*— baizik, bukaerako *t* orre-txekin; eta idatzi, orrela egin bear dala, gramatikak eskatzen duan bezela; naiz-ta gero, irakurtzean *t* ori ez esan *bait-da* ta *bait-gera* esatekoan (*baita* ta *baikera* esaten bait-degu); bañan bai *bait-zera* (*baitzera*) eta *bait-naiz* eta *bait-nintzan* esatekoan. (La-tinez ere *Ecclesia* bi *cerekin* idatzi oi-da, ta *offerre* bi *f'*kin, eta *Communio* bi *m'*kin; naiz gero, irakurtzekoan, *c* ta *f* ta *m* baka-rra irakurri).

Eta beste gabe, Gramatika-lege onekin bukatzen det nere itz-aldi au.

EVOLUCIONES EN LA LITURGIA EVOLUCIONES DEL «TE DEUM»

Dadas las no pocas evoluciones, que han experimentado otros elementos de la Liturgia Cristiana, no sería extraño que también hubiese experimentado por su parte algunas el «Te Deum laudamus».

En estas líneas ensayaremos nosotros algo que pueda arrojar alguna luz sobre esta interesante materia. Sin pretensiones. A base principalmente de un análisis literario.

* * *

Desde luego el «Te deum» —sea Himno o más bien una *Illatio*— originariamente debió de ser, no de acción de gracias, como hoy se le considera, sino de alabanza y de profesión de fe. Lo proclama su texto desde la primera enunciación hasta su fin: *laudamus, confitemur, veneratur, proclamant Sanctus, Sanctus, Sanctus, laudant, confitetur Patrem* etc.

Pero, al hablar de evolución, no nos referimos nosotros a ésta que afecta a la destinación externa de la pieza, sino más bien a algo que afecta al texto mismo. El texto de la pieza ha padecido varias evoluciones, y no por alteración, sino por adición. Sin duda, su último tercio, desde «*Salvum fac*» inclusive fue añadido con posterioridad a su primera composición. Cosa que no debe extrañar. Casi toda la Liturgia ha experimentado tales adiciones.

* * *

Como confirmación de esto último, permítasenos en este punto una pequeña digresión por el terreno de la Santa Misa.

La Santa Misa ha sufrido, no sólo la adición final de las tres Ave Marías y de la Salve y las preces leoninas con las tres jaculatorias, sino aun la adición del último Evangelio y de la Bendición. En tiempos en que la Bendición del Sacerdote era un

favor muy solicitado por el pueblo fiel (como antídoto contra algunos maleficios) el celebrante hubo de acceder a la concesión de tal favor ante la demanda de los asistentes a la Misa. Lo mismo que ante el terror medieval de las brujas y hechiceros, posiblemente, la Iglesia accedió a dar, de propina, al final del Santo Sacrificio la recitación de «los Evangelios» (el *initium* del de San Juan).

Concretándonos a esta adición del Último Evangelio, no cabe duda de su valor «exorcismal» dentro de nuestro Ritual; lo prueba el empleo que el Ritual Romano hace de él en el Exorcismo de los Posesos y en la visita a los enfermos, y el Manual Toledano en la Bendición de los campos. Y, conforme al Ritual Romano, es práctica muy popular en ciertos medios cristianos, la costumbre que se llama de «sacar los Evangelios» en favor de niños v. gr. que adolecen de algún mal de carácter misterioso.

En la Etnografía Vasca encontramos, así mismo, un dato relacionado con el carácter exorcismal del *Initium* del cuarto Evangelio, y es su uso en los amuletos (*kutun* en vasco) que se cuelgan a los niños recién nacidos durante los primeros meses, como protección contra un posible aojamiento («mal de ojo») de tipo hechiceril.

Además de esto, hay también en el Folk-lore vasco una observación que relaciona de un modo especial el final de la Santa Misa con las brujas y hechiceros. En efecto, si, después de recitadas la últimas oraciones, el Sacerdote deja abierto el Misal, la bruja que asistiere a la Misa, no podrá salir de la Iglesia, hasta tanto que alguien haya cerrado el libro abierto. Una fuerza sobrehumana la retendrá en el interior del Templo. Quizás es que antiguamente el último Evangelio —que se daba de propina en la Misa— se leía, no de la Sacra, como hoy, sino del propio Misal, el cual, una vez recitado el texto, normalmente se cerraba. Pero si, por cualquier incidencia, permanecía abierto con la página del Evangelio a la vista, el exorcismo continuaba obrando contra la bruja presente en la Iglesia.

* * *

Pero —y cerrando ya esta pequeña digresión y volviendo al

tema objeto de este artículo— es que además de las adiciones de la Santa Misa, hay otras adiciones más en la recitación de las Horas Canónicas: las Preces. Preces que en circunstancias especiales se han ido acumulando al final de la recitación de cada una de las horas Canónicas. Preces, cuya característica es la «petición»; oraciones de petición (no de alabanza). Lo típico de la oración del Psalterio, es, sin duda, la alabanza divina, salpicada, eso sí, pero muy sobriamente, de algunas peticiones. Pero, andando el tiempo, a la recitación de los Salmos se fueron agregando y más agregando, adiciones de tipo exclusivamente peticionario: las preces.

Ahora bien: aquí viene a cuento lo que nosotros quisiéramos dar a entender acerca de las adiciones que también ha experimentado, de la misma manera y en idéntico plan, el texto del «Te Deum». El final de él, a partir del *Aeterna fac*, está constituido por varios versículos, que son verdaderas adiciones de tipo peticional, «tipo preces».

* * *

Desde luego llama poderosamente la atención el carácter casi exclusivamente —desde luego eminentemente— peticional de estos versículos finales: *Salvum fac, benedic, rege, extolle, dignare Domine, miserere, fiat misericordia tua, non confundar...*

Por contraste con este final, lo que antecede de texto es eminentemente laudatorio, seguido de una formidable proclamación de los Principales Misterios de la Fe; al final de lo cual, sobriamente, sólo dos versos de «estilo preces» cierran lo que nosotros creemos el texto original; dos preces que nacen de la entraña misma de la pieza total: *Te, ergo, quaesumus* y *Aeterena fac*; doble petición, con la cual queda el canto perfectamente acabado.

Un detalle que convence plenamente de lo que decimos, es la *uniformidad perfecta de estilo* del texto hasta el versículo *Salvum fac* exclusive, y el cambio de estilo, que, por contraste, experimenta el resto. Cambio, naturalmente de tendencia peyorativa. El texto original lleva en sí la impronta de la gran escuela clásica de su autor, quienquiera que el sea. El estilo de la conti-

nuación desciende notablemente, dividiendo así el himno en dos partes heterogéneas, en detrimento evidente de la unidad del precioso conjunto, tal como debió de salir de la clásica pluma del autor.

Un detalle más destacaremos aquí, del saber clásico de aquellos dos primeros tercios, que para nosotros constituyen el texto íntegro original; y es su pequeño *hipérbaton*, consistente en la anticipación aun a distancia, del epíteto con respecto a su correspondiente sustantivo calificado: *Gloriosus Apostolorum Chorus*; *martyrum Candidatus laudat Exercitus*; *Sancta confiteyur Ecclesia*; *Santum quoque Paraclitum Spiritum*; *Patris Sempiternus es Filius*; etc.; *hipérbaton* que persevera aún en el segundo verso de petición, «*Aeterna fac cum Sanctis tuis In gloria numerari*», para cesar totalmente en los versos siguientes.

Esta dualidad de estilo es reveladora de dos manos distintas en la versión actual del conjunto: primera mano, la original del autor; y, segunda, la posible —más que posible— de monjes posteriores, que se entregaron ávidamente a la tarea de adicionar el texto original con versículos intencionadamente peticionarios.

* * *

Esta unidad de estilo literario queda espléndidamente confirmada por otra unidad más interna: la unidad de fondo de la pieza. Su tónica es eminentemente «laudatoria», seguida de una preciosa profesión de fe, perfectamente ordenada, como lo puede comprobar cualquiera que repare en el texto.

La enunciación de los Misterios empieza por la Unidad y Trinidad de Dios proclamadas en el cielo por los Angeles, y en la tierra por la Iglesia; los Angeles divididos en Angeles, Cielos, Potestades, Querubines y Serafines, que entonan el apocalíptico triple «Sanctus»; y la Iglesia con sus Apóstoles, Profetas, Mártires (no incluye a los Confesores ni las Vírgenes, ocupando su lugar la Santa Iglesia, quizás porque todavía en aquella edad de la composición del texto no se incluían en el Santoral expresamente las Vírgenes ni los Confesores). Después del Misterio de la Unidad y Trinidad de Dios, la Generación Eterna del Hijo (*Tu*

Patris) y su Encarnación (*Susceptorus hominem*) y la Redención (*Devicto mortis aculeo*), con la Ascensión (*Ad dexteram Dei*) y la Venida al Mundo al fin de los tiempos (*Judex crederis*), para pasar inmediatamente a las dos sobrias peticiones, de protección divina y salvación eterna, del *Te, ergo, quaesumus* y *Aeterna fac*. Todo ello, como se ve, en perfecta unidad de materia y perfecto orden lógico.

Lo que sigue en el texto actual, a partir del *Salvum fac*, inclusive, rompe esta unidad y orden, con peticiones de menor categoría y con reiteraciones que van contra la sobriedad clásica del autor del texto original.

Nada decimos de los versículos que, en número variado, suelen agregarse antes de la oración final (*Benedicamus Patrem* etc.) que son una reiteración más de lo ya cantado en el cuerpo del conjunto; versículos todos ellos, cuya extirpación, juntamente con todo lo arriba señalado como adventicio a partir del *Salvum fac*, en nada perjudicaría a la dignidad de la obra.

* * *

A idénticas conclusiones podría llegarse también por medio de un examen de la música con que se canta el texto, y del rito con que se acompaña.

En un himno que se canta de pie, el arrodillarse al verso *Te, ergo, quaesumus*, es indicio de un final; así como lo es también, y mucho más aun, el cambio melódico, de depresión, del verso siguiente *Aeterna fac*, depresión como de canto que toca a su fin.

4.

Curriculum vitae

1. MIS COSAS EN LA VIDA

- 1) Mi *vida*, de noventa años; nací en 1894:
- 2) Mis *oficios* en la vida:
- 3) *Profesor Catedrático* en el Seminario Ecc. de Vitoria.
- 4) *Profesor Catedrático* de *Arqueología Sagrada*.
- 5) *Profesor Catedrático* de *Lengua Vasca*.
- 6) *Profesor Catedrático* de *Lengua Hebrea*.

* * *

- 6) Dentro de mis *aficiones arqueológicas* tengo en mi haber, tres *descubrimientos* artísticos muy importantes:
- 7) Un *Greco* en Salinas de Léniz, San Francisco en éxtasis.
- 8) Otro *Greco* en Iraeta, Cestona, San Pablo Apóstol, medio cuerpo.
- 9) Un *Divino Morales*, una *Piedad*, medio cuerpo, en Santa Ana de Oñate.
- 10) A los cuales cabe añadir una *Sagrada Familia*, estilo Coello, en la Catedral de Calahorra, Secretaría de la Sala Capitular.

* * *

- 11) En la línea de *Descubrimientos*, pero en el terreno de la Historia tengo en mi haber otro descubrimiento, concretamente de la falsificación de los escritos de la Madre Rafols, con la consiguiente suspensión del Proceso de la Beatificación de la referida Madre en Roma.

* * *

12) En el terreno de la *Euskeralogia* tengo un haber muy importante; el haber salvado la vida del *Bertsolarismo vasco* con mis estudios sobre el tema, a partir del Congreso de Estudios Vascos de Vergara, año de 1930, estudios sobre el tema de la Literatura Oral euskérica, dando igualmente vida a todo lo referente a la producción poética de carácter oral.

* * *

13) En el terreno de la *Historia* tengo además en mi haber una campaña de reivindicación de la *naturaleza calagurritana* —vascona por tanto— de los Mártires de Calahorra —*Santu Martiriyak* por excelencia— San Emeterio y San Celedonio.

14) Vindicación que se extiende al *Poeta Prudencio*, el Poeta de la Iglesia Universal —vascón también él, como los Santos Mártires, cuyas Glorias cantó el Poeta Vascón en su *Peristéfanon*...

* * *

